

AA sortzailean tailerra

ENPLEGUAREN BILAKETAN aplikatuta

| | |
|---|----|
| Sarrera | 3 |
| 1.1. AA sortzailearen tresnak eta lan-arloko aplikazioak | 4 |
| 1.2. Xede-enpresetatik informazio garrantzitsua ateratzeko teknikak | 7 |
| 1.3. Eskaintza zehatzei aplikatzeko beharrezkoak diren gaitasunak ikastea | 9 |
| 1-2-3-4-5-6 ariketak | 10 |

Enplegu-eskatzaileei zein enpleguaren arloko teknikariei enplegua bilatzeko eta aukeratzeko prozesuan AA sortzailea erabiltzen laguntzeko diseinatuta dago gida honetako atal hau. Atalaren lehen zatian enpleguari aplikatutako AA sortzailearen oinarriak eta aplikazio praktikoak jorratuko dira eta bigarren zatian, berriz, enplegu eskatzaileentzako eta enpleguaren arloko teknikarientzako ariketa espezializatuak jasoko dira.

Helburua:

Parte-hartzaileei AA sortzailerako eta lan arloan dituen aplikazioetarako sarrera egitea, **teknologia hori lan egiteko eta enplegua bilatzeko modua nola eraldatzen ari den uler dezaten.**

1.1. AA sortzailearen oinarriko kontzeptuak eta tresnak

Datu motaren bilakaera

AA sortzaileak bilakaera nabarmena izan du hainbat datu mota prozesatzeko eta sortzeko duen gaitasunean. Hasieran, taula-formako datuekin egiten zuen lan nagusiki, baina orain formatu asko landu ditzake, irudiak, ahotsa, bideoa eta dokumentuak barne. Multimodalitate horrek nabarmen handitu ditu lan arloan eskaintzen dituen aukerak, eta, esaterako, grafiko eta tauladun txostenak automatikoki sortzeko aukera ematen du zenbakietatik abiatuta, multimedia aurkezpenak sortzen ditu, bideoak aztertzeko aukera ematen du portaera-patroiak identifikatzeko edo audio-grabazioen transkripzioa eta laburpena egiten du.

Lengoaia-ereduak

ChatGPT, Copilot, Gemini eta Claude gisako lengoaia-ereduak funtsezko tresnak bihurtu dira AA sortzailearen arloan. Eredu horiek sare neuronal sakonetan oinarritzen dira eta testua modu koherentean eta testuinguruan ulertu eta sortzen dute. Horrek aukera ematen du hainbat zeregin egiteko, besteak beste, itzulpen automatikoa, dokumentuen laburpena, galdera-erantzunak, kodea sortzea eta eduki sortzailea sortzea, hala nola poemak edo istorioak.

Online sarbidea duten tresnak

- **Copilot eta ChatGPT:** Tresna horiek doako bertsioak eta ordainpekoak eskaintzen dituzte eta erraz sar daiteke horietara webgunearen bidez. Halaber, Microsoft 365en aplikazioetan ere integratzen da Copilot, esaterako, Worden, Excelen eta PowerPoin-ten. Horrek erraztu egiten du eguneroko zereginetan erabili ahal izatea.

- **Perplexity:** es un buscador que se distingue por integrar IA generativa, permitiendo a las personaAA sortzailea daraman bilatzailea da eta erabiltzaileei lengoia naturalean kontsultak egiteko eta erantzun zehatzak eta testuinguruan jarritakoak jasotzeko aukera ematen die, iturri eta erreferentziek bermatuta. Hitz gakoetan oinarritzen diren bilatzaile tradizionalak ez bezala, Perplexityk lengoia-ereduak erabiltzen ditu galderaren atzean dagoen asmoa ulertzeko eta informazio zehatzagoa eta garrantzitsuagoa eskaintzeko.
- **NotebookLM:** Copilot eta ChatGPTz gain, AA sortzailearen beste tresna batzuk ere badaude eskuragarri, adibidez NotebookLM. Tresna horrek aukera ematen du dokumentu propioak (pdf-ak, bideoak, audioak) igotzeko, informazioa modu zehatz eta seguruan bilatzeko, aztertze eta prozesatzeko.

Promptingaren gaitasunak

AA sortzailearekin interakzioa “prompt” edo jarraibideen bidez egiten da. Prompt on bat erabiltzea funtsezkoa da emaitza esanguratsuak eta kalitatezkoak lortzeko. Prompt eraginkor batek honako hau izan behar du:

- **Rola:** AArengandik espero den rola zehaztu behar da (adibidez, “idazlea”, “itzultzailea”, “aztertzailea”).
- **Jarraibidea:** AAK zer egitea nahi dugun argi adieraztea.
- **Testuingurua:** Zereginaren gaiari edo testuinguruari buruzko informazio garrantzitsua ematea.
- **Adibideak:** (Hautazkoa) Lortu nahi den emaitzaren adibideak ematea AAri laguntzeko.

Promptinga menderatuz gero, AA sortzailearen potentzial guztia aprobetxa daiteke eta emaitza harrigarriak lortu askotariko aplikazioetan.

Enpleguaren bilaketarako aplikazioak

AA sortzaileak potentzialtasun handia du enplegua bilatzeko prozesua hobetzeko eta optimizatzeko. Hauek dira aplikaziorik nabarmenenetako batzuk:

- **Curriculumak optimizatzea:** Lengoia-ereduek curriculum baten idazketa eta egitura aztertu dezakete eta hobekuntzak iradoki, hitz gakoetara eta lan-eskaintza baten baldintza espezifikoetara egokitzeke.
- **Aurkezpen-gutunak sortzea:** AA lagungarria izan daiteke aurkezpen-gutun pertsonalizatuak eta sinesgarriak sortzeko, nahi den postuarentzako gaitasun eta esperientzia garrantzitsuak nabarmendu baititzake.
- **Lan-elkarrizketen simulazioa:** AAn oinarritutako txatbotek lan-elkarrizketen simulazioak egin ditzakete, hautagaiek erantzunak praktikatzeko eta egindakoaren gaineko atzeraelikadura jasotzeko.
- **Enpresen azterketa:** AAk enpresei buruzko informazioa jaso eta aztertu dezake, hautagaiei balizko enplegatzaileak hobeto ezagutzen laguntzeko eta elkarrizketak prestatzeko.
- **Gaitasun profesionalak garatzea:** Online ikaskuntza-plataforma batzuk AA erabiltzen dute prestakuntza-ikastaro eta -programa pertsonalizatuak eskaintzeko, pertsona bakoitzaren behar eta helburuetara egokituta.

1.2. Xede-enpresetatik informazio garrantzitsua ateratzeko teknikak

AA sortzailea erabiltzen duten bilatzaileak

Perplexity Alren moduko tresnek galdera orokorreari erantzuteaz gain, enpresei buruzko informazio espezifikoak eta garrantzitsua eskaintzeko findu daitezke. Horren barruan hainbat xehetasun sartzen dira, besteak beste, zeregina, ikuspegia, funtsezko balioak, antolaketa-egitura, albiste berriak, produktuak argitaratzea eta askoz gehiago.

Informazioa ateratzea

Prompt edo kontsulta espezifikoak erabiliz gero bilatzaileetan eta datu-baseetan, enpresei buruzko informazio xehea lor daiteke, hala nola:

- **Balioak eta kultura:** Zein dira enpresa gidatzen duten printzipioak eta filosofia? Nola deskribatzen du bere burua lan-kulturari dagokionez?
- **Organigrama:** Zein da enpresaren egitura hierarkikoa? Zein dira arloetako lider eta arduradun nagusiak?
- **Hitz gakoak eta baloratutako gaitasunak:** Zer termino eta gaitasun baloratzen dira maiz enpresaren lanpostuen eta komunikazioen deskribapenetan? Zer konpetentzia dira ezinbestekoak bertan lan egiteko?
- **Albisteak eta joerak:** Enpresan zer garapen izan dira azkenaldian? Zer albiste eta joera daude horrekin lotuta?

Enpresen ikerketa

AA sortzaileak eta onlineko beste ikerketa-tresna batzuk lagungarriak izan daitezke hautagaiantzat enpresa baten kultura, balioak eta egitura ondo ulertzeko. Horrek aukera ematen die:

- **Eskaerak egokitzeko:** curriculumak eta aurkezpen-gutunak egokitu ditzakete xede-enpresarentzako garrantzitsuenak diren gaitasunak eta esperientziak nabarmentzeko.
- **Elkarrizketak prestatzeko:** elkarrizketen galdera komunak aztertu ditzakete, erantzunak praktikatu eta enpresaren aurreikuspenetara ohitu.
- **Benetako interesa erakustea:** Enpresaren gaineko ezagutza sakona erakustean, hautagaiak frogatu dezakete lanpostuan benetako interesa dutela eta ikertzeko ahalegina egin dutela.
- **Hazteko aukerak identifikatzea:** Enpresaren egitura eta helburuak ulertzean, hautagaiak balizko ibilbide profesionalak eta epe luzerako garapen-aukerak identifika ditzakete.

Beste alternatiba batzuk

- **Sare sozialak:** LinkedIn eta Xren moduko plataformek informazio baliotsua eman dezakete enpresaren kulturari, albisteei eta ekitaldiei buruz.
- **Enplegatzaileen gaineko iritzien webguneak:** LinkedIn, Infojobs edo Glassdoor webguneak egungo eta aurreko langileek enpresari buruz dituzten iritziak jaso ditzakete eta horrek barne-ikuspegia ematen du.
- **Analisten txostenak:** Merkatua aztertzen duten enpresek eta finantza-analisten enpresa eta sektore espezifikoetarako buruzko txostenak argitaratzen dituzte.

1.3. Eskaintza zehatzei aplikatzeko beharrezkoak diren gaitasunak ikastea

Lan-eskaintzak aztertzea

AA sortzaileak zehatz-mehatz aztertu ditzake lanpostuen deskribapenak, lanpostu bakoitzerako beharrezkoak diren gaitasunak, esperientzia eta eskakizun espezifikoak identifikatzeko. Horren barruan sartzen dira ageriko trebetasun teknikoez gain, lanpostuan baloratuko diren trebetasun bigunak eta pertsonalitatearen ezaugarriak.

Trebetasunak garatzea

Lan-eskaintzaren azterketan eta zure egungo profilean oinarrituta, AAK ikastaroen, tutorialen, trebakuntza-programen, ziurtagirien eta beste baliabide batzuen gomendioak eman ditzake, lanpostu espezifiko baterako beharrezko trebakuntzak eskuratzeko edo hobetzeko.

Ikasketa-plana

AA lagungarria izan daiteke zure behar eta helburuetara egokitutako ikasketa-plan personalizatua eta egituratua sortzeko eta beharrezko gaitasunak modu efiziente eta eraginkorrean garatu ahal izateko. Plan horren barruan sar daitezke zure bilakaeraren jarraipena egiteko epeak, mugarriak eta aldizkako ebaluazioak.

1. ARIKETA

Bete gabeko postuei buruzko informazioa

Demagun paragrafo hau dugula industria-sektoreko bete gabeko lanpostu bati buruz. Erabili ChatGPT edo Copilot bete gabeko lanpostua kopiatzeko eta jarraian zerrendatutako galderak egiteko.

ADIBIDEA: Industria-sektoreko bete gabeko lanpostua

“Industriako mantentze-lanetarako teknikaria behar du automobilentzako osagarriak fabrikatzen dituen Gasteizko enpresa batek. Ezinbestekoa da PLC Siemens S7n, plano elektrikoaren interpretazioan eta pneumatikan esperientzia izatea. Robotika industrialeko (ABB) eta Lean Manufacturingeko ezagutzak baloratuko dira”.

1. urratsa: Teknizismoak deszifratzea

- **1. prompta:** Zer da PLC bat eta zertarako erabiltzen da PLC Siemens S7 bat?”
- **2. prompta:** “Zer esan nahi du ‘pneumatikak’ industriako mantentze-lanen testuinguruan?”
- **3. prompta:** “Zer da Lean Manufacturinga eta nola aplikatzen da industrian?”
- **4. prompta:** “Zer robot industrial mota fabrikatzen ditu ABBk?”
- **5. prompta:** “Zer jakin behar dut plano elektrikoak interpretatzeko?”

2. urratsa: Gaitasun gakoak identifikatzea

- **1. prompta:** “Deskribatu automobilen sektoreko Industriako mantentze-lanetarako teknikari batentzako gaitasun teknikorik garrantzitsuenak”
- **2. prompta:** “Normalean PLC Siemens S7ren gaineko zer esperientzia mota behar da industrian?”
- **3. prompta:** “Robotika industrialeko zer ezagutza eskatzen dira gehien Euskadin?”

3. urratsa: Ikasketa-plana

- **1. prompta:** “PLC Siemens S7 programatzen ikasi nahi dut. Zer ikastaro gomendatzen didazu Gasteizen edo online?”
- **2. prompta:** “Pneumatikako ezagutza hobetu behar dut. Non aurkitu ditzaket gai honi buruzko baliabideak edo ikastaroak?”
- **3. prompta:** “Zer liburu edo tutorial izan daitezke lagungarriak ABBren robotika industrialara hobetzeko?”
- **(Hautazkoa):** Informazio horrekin guztiarekin, egin ikasketa-plan pertsonalizatua
- **(Hautazkoa):** Ikasketa-plana eginda, bilatu Interneten ea Bilboko eskola edo erakunde publikoren batek prestakuntza hori eskaintzen duen.

2. ARIKETA

Enpresaren informazioa ateratzea

HELBURUA: Perplexity tresna erabiltzea enplegua bilatzeko interesekoak diren enpresei buruzko informazio garrantzitsua lortzeko.

URRATSAK:

1. AA sortzailea duen bilatzaile batera sartzea (esaterako, Perplexity).

2. Nahi den informazioa lortzeko prompt espezifikoak erabiltzea:

- **1. prompta:** “<IZENA> enpresaren eskaintza baterako hautagaitza aurkeztu nahi dut. Zein dira enpresa horren balioak?
 - AAk enpresaren balio aitortuei edo inplizituari buruzko informazioa emango du.

- **2. prompta:** “<ENPRESAREN IZENA>ren <LANPOSTUA> lan-eskaintzarako hautagaitza aurkeztu nahi dut. Zein da enpresaren organigrama?” “Zer sailetan egingo nuke lan?” “Nola egituratzen da <LANPOSTUA> sartuko nintzatekeen lantaldea?”
 - AAk informazioa baldin badu enpresaren antolaketa-egiturari, lanpostuarekin lotutako sailari eta taldearen hierarkiari buruzko xehetasunak emango ditu.
- **3. prompta:** “Nola frogatu dezaket nire curriculumean <IZENA> enpresaren balioak partekatzen ditudala?”
 - AAk curriculumama egokitzeko hainbat modu iradokiko ditu, hautagaia enpresaren balioekin bat datorrela islatzeko.
- **4. prompta:** “Lidergoaren zer trebetasun espezifiko baloratzen ditu <IZENA> enpresak?” Gauza berdina trebetasun bigun eta teknikoekin.
 - Enpresak enplegatuen artean lehenesten dituen kompetentziei eta trebetasunei (lidergoarenak, bigunak eta teknikoak) buruzko informazioa aterako du AAk.
- **5. prompta:** “Nola frogatu dezaket nire curriculumean <IZENA> enpresaren balioak partekatzen ditudala?”
 - AAk orientazioa emango digu gure curriculumean gaitasunik garrantzitsuenak nabarmentzeko, hautagaiak aukeratzeaz arduratzen diren langileen arreta bereganatzeko.

3. ARIKETA

Curriculumaz aztertzea eta optimizatzea

HELBURUA: AA erabiltzen ikastea edukia hobetzeko, itzultzeko eta curriculumaz beste eskaintza espezifiko batzuetara egokitzeko.

URRATSAK:

1. Curriculumaz prestatzea

- Zure egungo curriculumaren kopia digitala eskura izatea formatu editagarrian (.docx edo.txt).
- Hobetzeko arloak identifikatzea: Zer atal berridatzi eta berrantolatu behar dira? Garrantzitsua ez den informazioa dago edo informazioa falta da?

2. AA erabiltzea edukia hobetzeko

- AA sortzailearen tresna batera sartzea, hala nola ChatGPT edo Copilotera.
- Prompt argi eta zehatza ematea curriculumaz hobetzeko jarraibidearekin.
- Promptaren adibidea: "<ENPRESAREN IZENA>ren <LANPOSTUA> lan-egokitzarako hautagaitza aurkeztu nahi dut. Erantsitako dokumentua da nire egungo curriculumaz. Hobetu CVaren edukia eta idatzi atalka: {Motibazio pertsonala, harremanetarako datuak, lan-erperientzia, datu akademikoak, gaitasunak, hizkuntzak}. Edukiak zehatza eta profesionala izan behar du".
- Kopiatu eta itsatsi curriculumaz promptean edo erantsi fitxategi gisa tresnak uzten badu.
- errikusi eta editatu AAren iradokizunak, informazioa zehatza dela eta zure profil profesionala islatzen duela bermatuz".

3. Curriculumuma itzultzea

- AA erabiltzea curriculumuma beste hizkuntza batzuetara itzultzeko, adibidez, ingelesera eta **euskarara**.
- Promptaren adibideak:
 - I. 1. Prompta: Itzuli curriculumaren edukia ingelesera.
 - II. 2. Prompta: Ingeleseko hizkuntzalaritzan aditua zara. Berrikusi ingeleseko curriculumaren testua eta egin gramatikaren, puntuazioaren eta estiloaren gaineko iradokizunak.
 - III. 3. Prompta: Itzuli curriculumaren edukia **euskarara**.
 - IV. 4. Prompta: Euskal hizkuntzalaritzan aditua zara. Berrikusi euskarazko curriculumaren testua eta egin gramatikaren, puntuazioaren eta estiloaren gaineko iradokizunak.
- Berrikusi itzulpena eta egin zuzenketak beharrezkoa baldin bada.

4. Curriculumuma eskaintza espezifikoetara egokitzea

- Lan-eskaintzako hitz gakoak eta eskatzen diren trebetasunak identifikatzea.
- AA erabiltzea curriculumuma eskaintza espezifikora egokitzeko, trebetasun eta esperientzia garrantzitsuak nabarmenduz.
- Promptaren adibidea: “<ENPRESAREN IZENA>ren <LANPOSTUA> lan-eskaintzarako hautagaitza aurkeztu nahi dut. Egokitu nire curriculumuma lan-elkarrizketa bat emateko aukerak maximizatzeke”.

4. ARIKETA

Lan-elkarrizketaren simulazioa

HELBURUA: Lan-elkarrizketa bateko ohiko galderen erantzunak praktikatzea AA erabiliz.

URRATSAK:

- 1. Elkarrizketen simulazioak egiteko gaitasuna duen AA sortzailearen tresna batera sartzea, hala nola ChatGPT edo Copilotera**
- 2. Simulaziorako informazio garrantzitsua duen prompt bat eskaintzea**
 - Hautagaitza aurkeztuko den lanpostua.
 - Enpresa mota.
 - Kontuan izan beharreko alderdiak (nabarmendu beharreko gaitasunak, elkarrizketa mota, etab.).
 - Promptaren adibidea: "Lan-elkarrizketa baterako praktikatu behar dut. Lanpostua: Arropa-dendako dendaria. Enpresa: Bilboko arropa-denda independentea, estilo moderno eta gaztearekin. Kontuan hartu beharreko alderdiak: Bezeroentzako arretan dudan esperientziari eta nire moda-ezagutzei buruzko galderak egitea nahi dut".
- 3. AAren balderei elkarrizketa erreala izango balitz bezala erantzutea**
- 4. Erantzunak aztertzea**
 - Argiak eta zehatzak izan dira?
 - Trebetasun eta esperientzia garrantzitsuak erakutsi dituzte?
 - Jarrera profesional eta positiboa izan da?
- 5. Simulazioa errepikatzea hainbat promptekin, elkarrizketaren hainbat agertoki praktikatzeko**

5. ARIKETA

CVak bidaltzeko mezu elektronikoak idazteko garaian hobekuntzak egitea

HELBURUA: AA erabiltzea mezu elektroniko profesionalak eta eraginkorrak idazteko, zure curriculuma enpresari bidaltzeko.

URRATSAK:

1. Beharrezko informazioa biltzea

- Enpresaren eta hartzailearen izena (zein den baldin badakizu).
- Hautagaitza aurkeztuko duzun lanpostua.
- Enpresari buruzko informazio garrantzitsua (ikertu pixka bat bere zereginari, balierei edo proiektuei buruz).
- Lanposturako zure trebetasunen eta esperientziaren laburpena.

2. AA sortzailearen tresna bat erabili, hala nola ChatGPT edo Copilot

3. Sortu prompt bat jasotako informazioarekin eta mezu elektroniko bat idazteko jarraibidearekin

Promptaren adibidea: “Idatzi mezu elektroniko bat nire curriculuma [enpresaren izena](r)i bidaltzeko [lanpostua] lanposturako. Bereziki interesatzen zait [Enpresaren alderdi garrantzitsua]. [Zenbakia] urteko esperientzia dut [Arloa]n eta [trebetasunak]rako trebetasunak ditut. Erantsita bidaltzen dizuet nire curriculuma, kontuan hartzeko”.

4. Berrikusi eta editatu AAK sortutako mezu elektronikoa

- Ziurtatu tonua profesionala eta errespetuzkoa dela.
- Egiaztatu gramatika eta ortografia.
- Pertsonalizatu mezu elektronikoa zure estilora eta zuzentzen zaren enpresara egokitzeke.
- AAK ez badu amaierako esaldi egokirik gehitu, gehitu bat profesionala izateko (adibidez “Adeitasunez”, “Aldez aurretik eskerrik asko” edo “Eskerrik asko zure denbora eta arretagatik”).

5. Gorde mezu elektronikoaren kopia bat etorkizunean erreferentziak izateko

AHOLKU GEHIGARRIAK:

- Mezu elektronikoa zehatza eta zuzena izan dadila.
- Nabarmendu lanposturako zure trebetasunen eta esperientzia garrantzitsuenak.
- Adierazi enpresarekiko eta lanpostuarekiko zure grina.
- Eskerrak eman hartzaileari bere denbora eta arretarengatik.
- Berrikusi mezu elektronikoa arretaz bidali aurretik.
- Erabili gai argi eta zehatza eta gehitu zure hautagaitza aurkeztu nahi duzun lanpostuaren izena.

PROMPTAREN ETA SORTUTAKO MEZU ELEKTRONIKOAREN ADIBIDEA:

Prompta:

“Idatzi mezu elektroniko bat nire curriculuma Sagardi Taldeari bidaltzeko zerbitzari lanposturako. Bereziki interesatzen zait euskal sukaldaritza tradizionalaren gainean duen ikuspegia. 3 urteko esperientzia dut bezeroen arretan eta komunikaziorako, taldean lan egiteko eta kudeaketarako trebetasunak ditut. Erantsita bidaltzen dizuet nire curriculum, kontuan hartzeko”.

Sortutako mezu elektronikoa:

[Hartzailearen izena] agurgarria,


Sagardi Talderako zerbitzari lanpostuan interesa dudalako idazten dizut, [eskaintza ikusi duzun plataforma]n ikusi dudan iragarkian adierazten duzuen moduan.

3 urteko esperientzia dut bezeroentzako arretan, izugarri gogoko dut ostalaritza-industria eta Sagardi Taldeak euskal sukaldaritza tradizionalarekin duen konpromisoa miresten dut. Nire komunikazioko, taldean lan egiteko eta kudeaketarako trebetasunei esker, zerbitzu ezin hobea eskain diezaieket bezeroei eta taldearen arrakasta lortzen lagundu.

Curriculuma bidaltzen dizut atxikita, begiratzeko. Nire esperientziari eta kualifikazioei buruzko xehetasun gehiago aurki ditzakezu bertan. El-karrizketa bat izateko desiratzen nago, Sagardi Taldeari zer balio eman diezaiokekan aipatzeko.

Eskerrik asko zure denbora eta arretarengatik. Adeitasunez,

[Zure izena]



6. ARIKETA

CVak lan-eskaintzekin alderatzea

HELBURUA: AA erabiltzea bete gabe dauden lanpostuekin bat datozen profil profesionalak identifikatzea eta bat egitea azkartzeko.

URRATSAK:

1. Informazioaren prestaketa

- **Bete gabe dauden lanpostuak:** Eskuragarri dauden bete gabeko lanpostuen deskribapenak jasotzea, ahal dela formatu digitalean. Horren barruan xehetasun hauek sartzen dira besteak beste, lanpostuaren izenburua, funtzioen deskribapena, baldintzak (trebetasuna, esperientzia, prestakuntza), formatu mota.
- **Hautagaien profilak:** Hautagaien .doc edo .pdf zerrenda bat izatea, haiei buruzko informazioarekin, hala nola laneko esperientzia, gaitasunak, konpetentziak, interesak, etab. Informazio hori hainbat formatutan egon daiteke (CVak, erregistro-formularioak, enplegu plataformetako profilak, etab.). Gogoratu informazio pertsonalak anonimoa izan behar duela.

2. NotebookLM erabiltzea

- NotebookLM AAren doako tresna da, eta dokumentu propioetako testua prozesatzeko eta aztertzeko gaitasuna du. Gainera, informazioa alderatu dezake dokumentuen artean.

3. Automatizatzeko promptak diseinatzea

- AAri bete gabeko lanpostuei buruzko informazioa eta hautagaien profilak aztertzeko aukera ematen dioten promptak sortzea eta bat etortzea automatikoki.
- Prompt horiek argiak eta espezifikokoak izan behar dute eta hainbat bilaketa-irizpide eta konparazio izan ditzakete.

4. Prompten adibideak eta horien aplikazioa

1. prompta: Bete gabeko lanpostu baterako hautagaiak identifikatzea:

- “Aztertu hautagaien deskribapen hauek eta aukeratu [bete gabeko lanpostuaren izena] bete gabeko lanpostuaren baldintzak betetzen dituztenak. Hauek dira baldintzak: [Baldintzen zerrenda].”
- AAK hautagaien informazioa prozesatuko du eta bete gabeko lanpostuaren baldintzekin bat datozen pertsonen zerrenda bat egingo du.

2. prompta: Pertsona jakin batentzako bete gabeko lanpostuak identifikatzea:

- “Aztertu profil hau eta aukeratu bere ezaugarrietara ondoen egokitzen diren bete gabeko lanpostuak. Hau da pertsonaren profila: [Profilaren deskribapena].”
- AAK eskuragarri dauden bete gabeko lanpostuak aztertuko ditu eta egokien zerrenda bat egingo du.

3. prompta: Bete gabeko lanpostuaren eta hautagaiaren arteko kointzidentziaren puntuazioa:


- “Alderatu bete gabeko lanpostuaren deskribapen hau profil honekin eta eman 1etik 10erako puntuazioa kointzidentzia-mailaren arabera. Bete gabeko lanpostua: [Bete gabeko lanpostuaren deskribapena]. Hautagaia: [Profilaren deskribapena].”
- AAK puntuazio bat emango du bete gabeko lanpostuaren eta hautagaiaren egokitzapen-maila adierazteko, eta, hala, profilik esanguratsuenak lehenetsi ahal izateko.


4. prompta: Funtsezko trebetasunak identifikatzea:

- “Atera bete gabeko lanpostu hauetan eskatzen diren trebetasun garrantzitsuak: [Bete gabeko lanpostuen zerrenda].”
- AAK bete gabeko lanpostuen deskribapenak aztertuko ditu eta gehien eskatzen diren trebetasunen zerrenda bat egingo du.

5. Emaitzak berrikustea eta onartzea

- Garrantzitsua da enpleguaren arloko teknikariek AAk emandako emaitzak berrikustea eta onartzea; izan ere, automatizazioa tresna lagungarria da, baina amaierako erabakia giza irizpideetan oinarritu behar da.
- Egokitzapenak egin daitezke promptetan edo bilaketa-irizpideetan, emaitzen zehaztasuna hobetzeko.





AA sortzailean tailerra

NEGOZIO TXIKIETAKO EKINTZAILETZAN aplikatuta

| | |
|---|----|
| Sarrera | 23 |
| <hr/> | |
| IKUS-ENTZUNEZKOAK SORTZEA | |
| <hr/> | |
| 2.1. <u>Ikus-entzunezkoak sortzeko sarrera</u> | 24 |
| 2.2. <u>Irudi eta bideo bidezko AA sortzailearen kontzeptu garrantzitsuak</u> | 25 |
| 2.3. <u>Gai etiko eta legalak</u> | 27 |
| 2.4. <u>Ikus-entzunezkoak sortzeko AAren tresnak</u> | 29 |
| 1-2-3-4 ariketak | 30 |
| <hr/> | |
| DOKUMENTUAK BILATZEA ETA AZTERTZEA | |
| <hr/> | |
| 2.5. <u>Dokumentuen bilaketa eta azterketarako sarrera</u> | 39 |
| 2.6. <u>Ekintzailetzan aplikatutako dokumentuei buruzko erabilera-kasuak</u> | 40 |
| 5-6-7-8 ariketak | 42 |

Ekintzaileei negozioak azeleratzeko AA sortzailea erabiltzen laguntzeko diseinatuta dago gida hau. Lehenengo zatian, multimedia-edukia sortzea jorratuko da. Helburu nagusia da ekintzaileei markaren irudia, marketinerako materialak eta komunikazio digitalerakoak sortzeko eta hobetzeko trebetasunak eta tresnak ematea AA erabiliz. Bigarren zatian, konpetentziaren azterketa, negozioaren irismena, informazio propioaren bilaketa eta berreskurapena eta araudiarekin eta dirulaguntzekin lotutako informazioa azkar prozesatzea AA-rekin nola azeleratu landuko da.

Helburua:

- Parte-hartzaileei AA sortzailerako eta enpresa-arloan dituen aplikazioetarako sarrera ematea.
- Teknologia horrek negozioak nola eralda ditzakeen ikasteko panoramika zabala ematea.
- Negozioak garatzeko garaian AA sortzailea erabiltzeko trebetasun praktikoak garatzen laguntzea.

Atal hau amaitzean, parte-hartzaileak gai izango dira:

- AA sortzailearen oinarriak eta enpresa-arloan dituen aplikazioak ulertzeko.
- Negozioetan AA sortzailea erabiltzearekin lotutako aukerak eta erronkak identifikatzeko.
- Negozioak azeleratzeko garaian AA sortzailea erabiltzeko trebetasun praktikoak garatzeko.
- Gutxieneko produktu bideragarrien diseinua azkartzeko AA sortzailea erabiliz.

2.1. Ikus-entzunezkoak sortzeko sarrera

Adimen Artifizial sortzailea inpaktua izaten ari da hainbat sektoretan. Zehazki, ikus-entzunezko edukia sortzeko eta kontsumitzeko modua eraldatzen ari da, eta aukera sortzaileen eta aplikazio praktikoek aukera zabaltzen ari da.

Jarraian, ikus-entzunezko sektorearen, marketinaren eta publizitatearen sektoreko hainbat eremutako arrakasta-kasuak zerrendatuko dira:

- **Aldizkariak eta moda:** AA sortzailea modaren eta aldizkarien industria iraultzen ari da eta modelo birtualak, jantzien diseinu berritzaileak eta moda-editorial zirrargarriak sortzen ari da.
- **Iragarkiak:** Trivago eta Coca Cola moduko enpresek AA sortzailea erabili dute publizitate-iragarki pertsonalizatuak eta erakargarriak sortzeko eta xede-erabiltzailearengan eragina izateko.
- **Bideoklipak:** AA sortzailea musika-bideoklipak sortzeko ere erabiltzen ari dira. Eleven Labs tresnak, adibidez, musika-bideoklip originalak eta sortzaileak sortzen ditu audioetatik abiatuta.
- **Zinema eta telebista:** AA sortzailea efektu bereziak, pertsonaia birtualak eta agertoki fotoerrealistak sortzeko erabiltzen da, eta horrek sormen-aukera berriak sortzen ditu ekoizpen zinematrogafikoan eta telebistan.
- **Artea eta diseinua:** Artistak eta diseinatzaileak AA sortzailea erabiltzen ari dira diseinu desberdinak sortzeko eta ikusizko adierazpen-forma berriak arakatzeko.
- **Hezkuntza:** AA sortzailea hezkuntzako eduki interaktiboa eta pertsonalizatua sortzeko erabiltzen da, ikasleen behar indibidualetara egokitzeko.

2.2. Irudi eta bideo bidezko AA sortzailearen kontzeptu garrantzitsuak

Jarraian zerrendatuko dira irudiekin eta bideoarekin lan egiteko oinarrizko elementuak.

Promptinga

Funtsezkoa da promptak lengoaia naturalean idazten jakitea, AAren erduei nahi den edukia sortzen laguntzeko. Ondo egituraturako prompt batek argibide argi eta zehatzak ematen dizkio AAri eta, hala, emaitza zehatzagoak eta esanguratsuagoak lortzen dira. Testua sortzeko promptak egiteko formula hau da: rola, zeregina, testuingurua, estiloa eta tonua.

Irudiak eta bideoak sortzeko promptak

Irudiak sortzeko, formula bat erabili daiteke promptarentzat:

**Subjektu nagusia + plano mota + irudi mota +
objektuaren xehetasunak + atzealdearen xehetasunak + atmosfera.**

Gomendagarria da prompt hau ingelesez idaztea, baina tresnaren ezaugarrien arabera izango da. Horrez gain, bideoa sortu nahi bada, kameraren mugimendua gehitu beharko zaio formulari.

Jarraian ageri dira promptetan aipatu daitezkeen plano motak eta kameraren mugimenduak.

- **Plano motak (irudia eta bideoa):** Hainbat plano mota azaldu dira irudiak sortzeko garaian, tartean:
 - **Lehen plano:** Subjektuak hartzen du laukiratzearen zatirik handiena, aurpegiko xehetasunak edo adierazpenak nabarmenduz.

- **Erdiko plano:** Subjektua gerritik gora agertzen da, eta testuinguru eta gorputz-lengoaia gehiago ikusten da.
- **Plano orokorra:** Subjektua bere ingurune osoan ageri da, espazioarekiko duen harremana nabarmenduz.
- **Plano inklinatua:** Kamera inklinatu egiten da desoreka- edo tentsio-sentsazioa sortzeko.
- **Angelu altu eta baxuko plano:** Kamera subjektuaren gainetik edo azpitik jartzen da eta bere pertzepzioari eta botereari eragiten dio.
- **Sorbalda gaineko plano:** Kamera pertsonaia baten sorbalda atzean jartzen da, bere ikuspegia erakusteko.
- **Plano subjektiboa (POV):** Kamerak pertsonaia baten ikuspegiaren simulazioa egiten du, eta ikuslea eszenan murgiltzen du.
- **Kameraren mugimenduak (Bideoa):** Hainbat kamera-mugimendu aurkeztu dira bideoa egiteko, hala nola:
 - **Plano finkoa:** Kamera geldirik geratzen da, eszena mugitu gabe grabatuz.
 - **Plano inklinatua:** Kamera bertikalean mugitzen da, gora edo behera, posizio finko batetik.
 - **Jarraipen-plano:** Kamerak subjektua jarraitzen du mugitzen ari den bitartean, fokuratzea mantenduz.
 - **Dolly plano:** Kamera aurrera edo atzera mugitzen da, subjektuarengana hurbilduz edo urrunduz.
 - **Dolly zooma:** Kamera aurrera edo atzera mugitzen da zooma egokitu bitartean, distortsio-efektua sortuz.

- **Plano subjektiboa:** Kamerak pertsonaia baten ikuspegia simulatzen du, haren ikuspegia erakutsiz.
- **Kamera eskuan grabatutako planoak:** Kamera eskuarekin eusten da, errealismo eta ezegonkortasun sententzioa sortuz.
- **Aireko planoak:** Kamerak goiko ikuspegitik grabatzen du eszena, droneak edo garbiak erabiliz.
- **Paneoak:** Kamerak horizontalean egiten du bira posizio finko batetik, ingurunea aztertuz..
- **Paneo azkarra:** Kamerak azkar egiten du bira, abiadura- edo bertigo-sententzioa sortzeko.

Oinarrizko kontzeptuez gain, teknikak aipatu dira sortutako irudiei eta bideoei sakontasuna eta xehetasunak gehitzeko, hala nola argiztapenari buruzko termino espezifikoak gehitzeko, testurak erabiltzeko eta ikusizko efektuak aplikatzeko.

2.3. Gai etiko eta legalak

Funtsezkoa da AA sortzailea modu arduratsuan ezarri nahi duten ekintzaileek teknologia horren erabilerarekin lotutako gai etikoak eta legalak ezagutzea.

Gai etikoak

- **Joerak eta diskriminazioa:** AA sortzailearen ereduak entrenatzeko erabilitako datuetan zeuden joerak islatu eta handitu ditzakete. Horrek emaitza diskriminatzaileak sor ditzake edukia sortzeko garaian. Ekintzaileek arrisku horretaz ohartu behar dute eta AA aplikatzeko garaian joerak murrizteko neurriak hartu.

- **Egiazkotasuna eta gardentasuna:** AA sortzaileak pertsonak sortutako edukiarengandik bereizteko zaila den edukia sor dezake. Horrek egiazkotasunari eta gardentasunari buruzko galderak sortzen ditu. Garrantzitsua da ekintzaileak gardenak izatea produktuetan edo zerbitzuetan AA sortzailea erabiltzeko garaian.
- **Erabilera arduratsua:** Ekintzaileek AA sortzailea modu arduratsu eta etikoan erabili behar dute, jarduera ilegal edo kaltegarrietarako erabiltzea ekidinez, adibidez, albiste faltsuak sortzeko, deep fakeak, iraintzeko edo egile-eskubideen aurka egiteko.

Gai legalak

- **Egile-eskubideak:** AArekin edukia sortzeak egile-eskubideekin lotutako gai legal konplexuak planteatzen ditu. Garrantzitsua da ekintzaileek bermatzea AArekin sortutako edukia ez duela hirugarrenen egile-eskubideen aurka egiten. Horretarako baliteke ordainpeko lizentziak lortu behar izatea edo domeinu publikoko edukia erabil daitekeen ebaluatzea.
- **Jabetza intelektual:** Ekintzaileek ere kontuan izan behar dute AArekin sortutako egile-eskubideen jabetza nork duen. Garrantzitsua da gai legal horiek argitzea AAk sortutako edukia komertzialki erabiltzen hasi aurretik, kontu horiek aplikazioen terminoen eta baldintzen araberrakoak izango dira.
- **Datuen babesa:** AA sortzailea erabiltzeko baliteke datu pertsonalak biltzea eta prozesatzea. Datuen babeserako lege aplikagarriak bete behar dira, hala nola Europar Batasuneko Datuen Babeserako Araudi Orokorra (DBAO), eta erabiltzaileen datuen pribatutasuna eta segurtasuna bermatu behar da.

Funtsezkoa da ekintzaileak AA sortzailearekin lotutako gai legal eta etikoen gainean eguneratuta egotea eta beharrezkoa denean lege-aholkularitza bilatzea.

2.4. Ikus-entzunezkoak sortzeko AAren tresnak

Arlo horietan erabiltzen diren AA tresnen artean hauek daude:

- **Freepik:** Irudiak eta bideoak sortzea eta diseinu grafikoa.
- **Canva:** Diseinu grafikoa sortzea eta editatzea.
- **Napkin.ai:** Aurkezpenetarako diagramak sortzea.
- **Gamma:** Power Point motako aurkezpenak sortzea.

Freepik-en funtzionaltasun nagusiei buruz

- **Irudiak sortzea**
 - Freepik-ekin irudiak sor daitezke testu-deskribapenetatik (promptak) eta ikusizko erreferentzietatik abiatuta.
 - Pertsonaia pertsonalizatuak sortzea: pertsonaiak sortzeko aukera dago “Character” funtzioa erabiliz, hainbat angelutatik eta argiztapen-baldintzekin ateratako 5 eta 25 argazki bitarteko argazki-multzoetatik abiatuta.
 - Argazkiak hobetzea (Reimagine): “Reimagine” funtzioa erabil daiteke existitzen diren argazkiak aldatzeko eta hobetzeko.
 - Zirriborroetatik abiatuta sortzea: “Sketch to image” tresnak irudiak sortzen ditu marrazki eta zirriborro errazetatik abiatuta.
 - Argazkiak handitzea (Upscaler): Irudien bereizmena eta xehetasuna nola handitu erakusten da “Upscale” funtzioa erabiliz.
- **Bideoa sortzea**
 - Bideoak sortzeko eta bideotarako “promptingaren” oinarrizko kontzeptuetarako sarrera.
- **Ahots sintetikoa sortzea**
 - Freepik AI Voice Generatorrerako sarrera voice-overrak sortzeko.
- **Soinu-efektuak sortzea**
 - Freepik-en funtzionaltasuna aipatzen da bideoei soinu-efektuak gehitzeko.

1. ARIKETA

Freepikekin irudiak sortzea

Freepik AI Suitek ikusizko edukiak sortzeko eta editatzeko dituen funtzionaltasunak azaltzen dira.

HELBURUA: Produktuen argazkiak egitea hainbat laukiratzerekin, Freepikeko eta Canva-ko AA sortzailearen tresnak erabiliz, argazkilaritzan edo diseinuan aditua izan beharrik gabe.

ZER BEHAR DUGU?

- Kontua Freepiken (doako edo ordainpeko bertsioa erabil dezakezu).
- Hautazkoa: Canva (sortutako irudiak osatzeko edo editatzeko).
- Argazkia atera nahi diozun produktuaren ideia argia (objektu fisiko bat edo produktu digital baten ideia bat izan daiteke).

URRATSAK:

1. Freepiken irudiak sortzeko tresnetara sartzea

- Joan zaitez Freepiken orrialdera (freepik.es).
- Bilatu "AI Suite" edo "AAren tresnak" atala.
- Bilatu "sortu irudiak" aukera ("From words to images" edo antzeko zerbait izan daiteke). Sakatu hemen.

2. Zure produktuaren irudia "prompt" batekin deskribatzea

- Hemen esango diozu AARI argazkian zer ikusi nahi duzun. Hori da "prompta".

- **Adituak ez direnentzat, errazena oinarrikoenetik hasia da:**
 - **Identifikatu subjektu nagusia:** Zeri atera nahi diozu argazkia? (Adibidea: “zilarrezko koilare bat”, “kafe-kikara bat”, “mugikor bat”).
 - **Gehitu objektuaren xehetasunak:** Deskribatu zure produktuaren ezaugarriak (Adibidea: “zilarrezko koilare bat izar baten zintzilikailuarekin”, “kafe-kikara zuri bat nire enpresaren logoarekin”, “mugikor beltz bat zorro gorriarekin”).
- **Gero, plano mota adieraziko dugu:**
 - Hemen esango diozu AAri argazkia nola laukiratu nahi dugun. Ez zaitetz kezkatu izen konplikatuengatik, deskribapen errazak erabiliko ditugu.
 - > **Lehen plano (Close-up):** Xehetasunak erakusteko. Demagun asko hurbiltzen zarela objektura. Promptean honelako zerbait jar dezakezu: “[Zure produktua]ren lehen plano”, “[zure produktura] hurbiltzea”, edo “[zure produktuaren] xehetasuna”.
 - > **Erdiko plano:** Produktu osoa erakusteko, baina baita ingurunearen zati bat ere. Demagun produktua ikusten duzula norbaitekin hitz egiten egongo bazina bezala. Promptean, honelako zerbait jar dezakezu: “[Zure produktuaren] erdiko plano”, “[produktuaren] ikuspegia gerritik gora”.
 - > **Plano orokorra:** Produktua bere ingurunean erakusteko. Demagun produktua kanpotik ikusten duzula. Promptean, honelako zerbait jar dezakezu: “[Zure produktuaren] plano orokorra”, “[zure produktuaren] ikuspegi zabala [ingurunearekin]”.
- **Gehitu atzealdearen xehetasunak (hautazkoa):**
 - Zure produktua leku espezifiko batean egon dadin nahi baduzu, deskribatu (Adibidea: “egurrezko mahai baten gainean”, “atzealde zuri batean”, “kafetegi batean”).
- **Deskribatu argiztapena (hautazkoa):**
 - Argi distiratsua, leuna eta abar nahi duzun adierazi, (Adibidea: “argi naturalarekin”, “argi leunarekin”, “itzalekin”).

- **Praktikatzeko prompt osoen adibideak:**

- “Zilarrezko lepoko baten lehen plano a izardun zintzilikailu batekin, argi leunarekin”.
- “Kafe-kikara baten erdiko plano a nire enpresaren logoarekin, egurrezko mahai baten gainean”.
- “Zorro gorria duen mugikor beltz baten plano orokorra, atzealde zuriarekin”.

3. Irudia sortzea

- Zure prompta idatzi ondoren, sakatu “Sortu” edo antzeko zerbait dioen botoia eta egin klik.
- AAK zure eskaera prozesatuko du eta irudi bat edo batzuk sortuko ditu.

4. Berrikustea eta egokitzea

- Begiratu AArekin sortutako irudiak.
- Ez badituzu gogoko, prompta aldatu dezakezu eta irudi berriak sortu.
- Planoen konbinazio desberdinak, atzealdeak eta argiztapenak proba ditzakezu nahi duzun emaitza lortu arte.

5. Deskargatu irudia

- Irudi batekin asebeteta zeudenean, bilatu deskargatzeko aukera.
- Gorde ezazu zure ordenagailuan edo gailuan.

Irudiaren eta bideoaren promptingean hasteko aholkuak

- Hasi errazenetik: Ez zaitetz erotu prompt oso luzeekin hasieran. Joan zaitetzke pixkanaka xehetasunak gehitzen.

- Esperimentatu: Probatu hitzen eta estiloen hainbat konbinazio. AA sortzailea esperimenteratzeko tresna da.
- Erabili hitz gakoak: “Lehen plano”, “erdiko plano”, “argi leuna”, “atzealde zuria” moduko hitzak oso erabilgarriak dira AA gidatzeko.
- Ez frustratu: Batzuetan AAK ez du sortzen zehazki buruan duzuna: Segi zure promptak probatzen eta egokitzen.
- Inspira zaitez: Begiratu gogoko dituzun produktuaren argazkiak eta saiatu ezaugarri horiek zure promptetan deskribatzen.
- Erabili AA bidezko testu sortzaileak, hala nola ChatGPT edo Copilot, adibide gisa erabiltako irudi baten “prompt” formatuko deskribapenak eskatzeko, eta, hala, oinarri bat izateko.

2. ARIKETA

Negozio baterako logoa diseinatzea

HELBURUA: Logotipo moderno eta erakargarria sortzea balizko negozio erreal edo fikziozko baterako. Adibide honetan “Innovatech” esango diogu.

URRATSAK:

- 1. Ikerketa:** Aztertu enpresa liderren logotipoak inspiratzeko.
- 2. Ideia-zaparrada:** Definitu “Innovatechen” balioak eta identitatea (adibidez, berrikuntza, teknologia, etorkizuna).
- 3. Canvarekin diseinatzea:**
 - Erabili Canva logoen txantiloien diseinuak ikusteko.
 - Esperimentatu ikonoen, tipografien eta koloreen konbinazioekin.
 - Erabili teknologia irudikatzen duten elementu grafikoak (adibidez, zirkuituak, nodoak, lerroak).
 - **Aldaerak:** Partekatu zure diseinuak beste ikaskide edo mentore batzuekin eta jaso haien iritzia.
 - **Feedbacka:** Comparte tus diseños con otros/as compañeros/as o mentores y obtén su opinión.
- 4. Egokitzapenak:** Findu diseinua jasotako feedbacka oinarri hartuta.
- 5. Entrega:** Deskargatu amaierako logotipoa hainbat formatutan (adibidez, PNG, JPG, SVG).

3. ARIKETA

Markaren identitatea sortzea

HELBURUA: Markaren oinarritzko identitatea garatzea fikziozko negozio baterako, logotipoa eta koloreen paleta barne.

URRATSAK:

- 1. Negozioa aukeratzea:** Aukeratu fikziozko negozio mota bat (adibidez, kafetegia, arropa-denda, bidaia-agentzia).
- 2. Markaren definizioa:** Definitu pertsonalitatea, balioak eta negozioaren xede-publikoa. ChatGPT edo Copilot tresnak erabil ditzakezu horrekin laguntzeko.
- 3. Canvan logotipoa diseinatzea:**
 - Sortu negozioaren identitatea islatzen duen logotipo bat existitzen diren txantiloietan oinarrituta.
 - Jarri arreta letra tipoa eta koloreak aukeratzeko garaian.
- 4. Koloreak ateratzea:**
 - Deskargatu logotipoa irudi-formatuan.
 - Erabili [Adobe Color](#) tresna logotipotik koloreak ateratzeko.
- 5. Koloreen paleta:**
 - Definitu koloreen paleta koherentea markaren logotipoarekin eta identitatearekin.
 - Kontuan hartu kolorearen psikologia eta xede-publikoan duen inpaktua.

4. ARIKETA

Negozioaren pitch bat sortzea Gamma.app aplikazioarekin

HELBURUA: Zure negozio pitcharen aurkezpen eraginkorra sortzea Gamma.app plata-forma erabiliz.

URRATSAK:

1. Pitcharen edukia prestatzea:

- Gamma.app erabili aurretik, definitu zure negozio-pitcharen edukia argi. Horren barruan sartu beharko da:
 - > **Arazoa:** Deskribatu zure negozioak zer arazori ematen dion soluzioa.
 - > **Irtenbidea:** Azaldu zure produktuak edo zerbitzuak nola ematen dion soluzioa arazo horri.
 - > **Balio-proposamena:** Nabarmendu eskaintzen dituzun onurak eta balio berdingabea.
 - > **Xede-merkatua:** Definitu nori zuzentzen zatzaizkion.
 - > **Negozio-eredua:** Azaldu diru-sarrerak nola sortzen dituzun.
 - > **Lantaldea:** Aurkeztu zure lantaldeko pertsona garrantzitsuak.
 - > **Finanzas (Opcional):** Gehitu aurreikuspen finantzarioak beharrezkoa baldin bada.
 - > **Ekintzarako deia:** Adierazi aurkezpenaren ondoren audientziak zer egitea nahi duzun (adibidez, inbertitzea, lankidetzan aritzea, etab.).

2. Gamma.app aplikaziora sartzea:

- Sartu [Gamma.app](#) aplikaziora zure web-nabigatzailetik.
- Sortu kontu bat edo hasi saioa dagoeneko baldin baduzu.

3. Aurkezpena sortzen hastea:

- Gamma.app aplikazioaren barruan, bilatu aurkezpen berri bat sortzeko aukera.
- Gamma.app aplikazioak AA erabiltzen du aurkezpenak azkar sortzen laguntzeko. Fitxategi batekin has zaitezke, testua kopiauz eta itsatsiz, edo hutsetik.

4. Aurkezpena sortzea AAekin:

- Gamma.app aplikazioaren AAK zure aurkezpenarentzako hasierako egitura eta edukia iradokizunak sortuko ditu.

5. Gai bat aukeratzea:

- Aukeratu ikusizko gai bat zure aurkezpenerako. Gamma.app aplikazioak aurrez definitutako hainbat gai eskaintzen ditu aukeratzeko eta pertsonalizatzeko.
- Letra-tipoak, koloreak eta estiloak pertsonaliza ditzakezu zure markaren identitatearekin bat egiteko.

6. Edukia editatzea eta pertsonalizatzea:

- Berrikusi AAK sortutako edukia eta editatu zure pitchera ezin hobe egokitzeko.
- Gehitu zure negozioaren informazio espezifikoa, datu garrantzitsuak eta adibideak.
- Antolatu diapositibak ordena logiko eta koherentean.

7. Gehitu ikusizko elementuak:


- Hobetu zure aurkezpena ikusizko elementu erakargarriak gehituz:
 - > **Irudiak:** Gehitu kalitate handiko irudiak zure puntu gakoak ilustratzeko.
 - > **Grafikoak eta taulak:** Erabili grafikoak eta taulak datuak eta proiektzioak modu argian aurkezteko.
 - > **Bideoak (beharrezkoa bada):** Gehitu bideo laburrak zure pitcherako garrantzitsuak baldin badira.

8. Diseinua berrikustea eta egokitzea:

- Ziurtatu testua irakurterraza dela, irudiak ondo kokatuta daudela eta aurkezpenak itxura profesionala duela.
- Egin egokitzapenak diseinuan, elementuen kokapenean eta tipografian, argitasuna eta ikusizko inpaktua hobetzeko.

9. Aurkeztea eta partekatzea:

- Erabili Gamma.app aplikazioaren aurkezpena zure negozioaren pitcha egiteko.
- Gamma.app aplikazioak aukera ematen dizu plataformatik zuzenean aurkezteko edo aurkezpena hainbat formatutan esportatzeko.



2.5. Dokumentuen bilaketa eta azterketarako sarrera

Ekintzailtzaren munduan hainbat dokumenturekin egiten da lan: txostenak, aurkezpenak, analisiak, etab. Bigarren zati honen helburua da Adimen Artifizial (AA) Sortzailearen oinarriak eta askotariko aplikazioak aztertzea testuaren arloan, zehazki, ekintzailtza eta negozio txikien kudeaketa bultzatzera begira.

Helburuak:

- **AAk ekintzailtzean dituen aplikazio praktikoak ulertzea:** AAren bitartez enpresa-arloko edukiak azkartzeko erabilera-kasu errealak aztertuko dira, besteak beste, Business Model Canvas bat sortzea, komunikazioa automatizatzea eta datuak aztertzea.
- **AA duten bilaketa-tresnetarako eta informazio-laburpenetarako sarrera:** AAk informazio-bolumen handien ikerketa, azterketa eta laburpena nola erraztu dezakeen aztertuko da, arrazoitzen duten ereduak eta tresna espezializatuen erabilera barne, esaterako, NotebookLM eta Perplexityrena.
- **Arrazoitzen duten ereduak:** Ezagutza sakona, espezifikoa edo eguneratua eskatzen duten zereginetan, informazioa bilatzea eta aztertzeke gaitasuna uztartzen duten eta arrazoitzen duten ereduak erabiltzen dira. Arrazoitzen duten ereduak arrazoiketa egituratuago eta logiko baterako daude diseinatuta. Arazo konplexuagoak bideratzeko erabiltzen dira eta urrats txikiagoetan zatitzen dituzte. Bereziki erabilgarriak dira matematikan, logikan eta erabaki egituratuak hartzeke garaian. Eredu horien "promptingak" ikuspegi espezifikoa eskatzen du, helburuaren definizio argia, nahi den irteera-formatua, ohartarazpenak eta testuinguru garrantzitsua barne.

2.6. Ekintzailtzean aplikatutako dokumentuei buruzko erabilera-kasuak

Ekintzailtzearen egungo panoraman, Adimen Artifizial (AA) Sortzailea efizientziaren eta berrikuntzaren katalizatzailea da. Jarraian aztertuko dugu nola ari diren teknologia hori aplikatzen hainbat enpresa-agertokitan:

- **Enpresentzako edukia sortzea:** AA iraultzen ari da enpresen edukia sortzeko modua. Egun, prozesuak azkartzen ditu eta barne-informazioa zein konpetentziarena ateratzea eta laburtzea sustatzen du. Horretarako, mezu elektronikoak automatizatzen ditu komunikazio efizienteagoa lortzeko eta Errendimenduaren Adierazle Gakoak (KPI) sortzen ditu, enpresaren jardunaren jarraipen zehatza egin ahal izateko. Gainera, zerbitzuei edo produktuei buruzko iruzkinak eta iritziak aztertzeko erabiltzen da eta horrek etengabeko hobekuntzarako informazio baliotsua ematen du. Konpetentzia AA-ren tresnekin aztertzea ere ohiko praktika bihurtzen ari da, bai eta araudia, txostenak eta dirulaguntzak aztertzea ere, araudiekin eta aukerekin egunean mantentzeko.
- **Marketineko edukia sortzea:** AA sortzailea eraldatzen ari da marketineko edukiaren sorkuntza eta enpresei aukera ematen baitie hainbat kanaletarako testuak azkarrago eta modu eraginkorragoan sortzeko. Blog-argitalpen erakargarriak eta mezu elektroniko pertsonalizatuak idazten ditu eta iragarki erakargarrien kopiak sortzen ditu. Halaber, bideo-iragarkientzako gidoiak eta xede-publikoaren arreta erakartzen duten produktuen erakustaldiak ere idazten ditu eta produktuen deskribapenak sortzen ditu haien ezaugarriak eta onurak nabarmenduz. Gainera, AAK grafikoak eta testu bidezko edukia osatzen duten ikusizko beste baliabide batzuk sortzea sustatzen du.
- **Bilera-aktak transkribatzea eta sortzea:** AAK bilerak transkribatzen ditu eta akta xeheak sortzen ditu. NotebookLM eta Read.ai gisako tresnak erabiltzen dira audioa transkribatzeko eta aktak sortzeko, akta horiek testuinguruaren informazioa, puntu garrantzitsuak, ekintza-puntuak, ingurunearen ebaluazioa eta ondorioak jasotzen dituzte.

- **Business Model Canvas sortzea eta AMIA analisia:** AA Business Model Canvas sortzeko eta AMIA analisi xeheak egiteko erabiltzen da. "Prompt" espezifikoak ematen zaizkio AAri bezeroen segmentuak, balio-proposamenak, bezeroekiko harremana, baliabide gakoak, jarduera gakoak, bazkide gakoak, kostuen egitura eta diru-sarreraren iturriak aztertzeko. Halaber, enpresa batek bere kompetentziarekiko dituen Ahultasunak, Mehatxuak, Indarguneak eta Aukerak (AMIA) aztertzeko ere erabiltzen da.
- **Dokumentu luzeen azterketa:** NotebookLMren moduko tresnak erabiltzen dira dokumentu luzeak aztertzeko, hala nola erabiltzaileen eskuliburuak, txostenak, araudiak eta dokumentu teknikoak. Puntu gakoak laburtzeko, FAQak egiteko, informazio garrantzitsua identifikatzeko eta glosarioak sortzeko aukera ematen du, eta horrek informazio-kopuru handiak ulertzea eta horrekin lan egitea errazten du.

5. ARIKETA

Konpetentziaren analisia Deep Researchekin

HELBURUA:

Ariketa honen helburua da AA tresna baten (adibidez, Gemini edo Perplexity) Deep Research funtzionaltasuna erabiltzea enpresa baten konpetentziaren azterketa zehatza egiteko. Azterketa horrek informazio baliotsua emango digu erabaki estrategikoak hartzeko, aukerak identifikatzeko eta enpresaren egoera lehiakorra hobetzeko.

TRESNA:

Perplexityren **Deep Research** funtzionaltasuna erabiliko dugu. (Gemini eta ChatGPT dira beste aukerak baina ordainpeko lizentzia behar da).

URRATSAK:

1. Xede-enpresa definitzea:

- Aukeratu enpresa bat aztertzeko. Zure enpresa propioa, zuk lan egiten duzun enpresa edo fikziozko enpresa bat izan daiteke.
- Definitu argi enpresak zer sektoretan jarduten duen eta bere balio-proposamen nagusia zein den.

2. Enpresa lehiakide garrantzitsuak identifikatzea:

- Zerrendatu xede-enpresaren enpresa lehiakide zuzen eta zeharkako nagusiak.
- Kontuan hartu antzeko produktuak edo zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresa lehiakideak eta bezeroen behar hori beste modu batera asetzen dutenak.

3. Deep Researcherako prompta prestatzea:

- Sortu prompt zehatz bat Deep Researchen tresna gidatzeko konpetentzia aztertze-ko garaian.
- Promptak elementu hauek izan behar ditu:
 - > **Rola:** Esleitu rol bat AAri azterketa bideratzeko (adibidez: “.... Sektorean aditua den merkatu-analista zara).
 - > **Jarraibidea:** Definitu egin beharreko zeregina (adibidez: “Egin [enpresaren izena] ren konpetentziaren azterketa [Sektorea] sektorean”).
 - > **Aztertu beharreko alderdiak:** Zehaztu enpresa lehiakide bakoitzarentzat aztertu beharreko alderdi garrantzitsuak:
 - Balio-proposamena: Zer eskaintzen du enpresa lehiakide bakoitzak? Zer faktore bereizgarri ditu?
 - Xede-merkatua: Zer bezero motari dago zuzenduta enpresa lehiakide bakoitza? (generoa, adina, lanbidea, etab.)
 - Banaketarako kanalak: Nola iristen da enpresa lehiakide bakoitza bere bezeroengana? (Denda fisikoa, online, etab.)
 - Marketineko eta komunikazioko estrategiak: Nola sustatzen da enpresa lehiakide bakoitza?
 - Indarguneak eta ahulguneak: Zein dira enpresa lehiakide bakoitzaren abantailak eta desabantailak?
 - Prezioak eta kostuen egitura: Enpresa lehiakide bakoitzak zer posizio du prezioei dagokienez?
 - Berrikuntza: Enpresa lehiakide bakoitzak zer berrikuntza maila du?
 - > **Testuingurua:** Informazio gehigarri garrantzitsua ematen du (adibidez: “Xede-enpresaren bereizgarria da...”, “Enpresa lehiakide nagusiak dira...”).
 - > **Irteera-formatua:** Adierazi informazioa zer formatutan jaso nahi den (adibidez: “Aurkeztu informazioa alderaketa-taula batean”, “Egin txosten xehe bat”).

4. Deep Research exekutatzea:

- Sartu prompta AAren tresnan eta aukeratu Deep Research funtzioa..
- Ikusi tresnak nola bilatzen eta laburtzen duen informazioa hainbat iturritatik.

5. Emaitzak aztertzea:

- Berrikusi arretaz AA tresnak emandako emaitzak.
- Identifikatu enpresa lehiakide bakoitzaren indargune, ahultasun, aukera eta mehatxu nagusiak..
- Alderatu xede-enpresa lehiakideekin aztertutako hainbat alderditan.

6. Ondorioak ateratzea:

- Laburbildu lehiakideen azterketaren ondorio nagusiak.
- Identifikatu xede-enpresarentzako aukerak, hala nola artatu gabeko merkatu-hobiak, eskaintza bereizteko estrategiak edo posizio lehiakorra hobetzeko arloak.
- Azterketaren ondorioetatik abiatuta, definitu ezarri beharreko ekintza zehatzak.

Promptaren adibidea:

“Moda jasangarriaren sektorean aditua den merkatu-analista bat zara. Egin ‘EcoChic’ enpresaren lehiakideen azterketa. Online moda jasangarriaren sektoreko marka bat da. Lehiakide nagusiak ‘GreenStyle’, ‘EthicalWear’ eta ‘ConsciousFashion’ dira.

Aztertu zehatz-mehatz enpresa lehiakide bakoitzarentzat:

- Balio-proposamena: Zer arropa jasangarri mota eskaintzen du? Zein dira materialak, ekoizpen-prozesuak eta markaren balioak?
- Xede-merkatua: Bezeroen zer segmenturi dago zuzenduta (adina, bizimodua, balioak)? Aipatu hiru pain eta hiru gain segmentu bakoitzeko.
- Banaketarako kanalak: Online saltzen du, denda fisikoetan ala marketplaceak erabiltzen ditu?
- Marketineko eta komunikazioko estrategiak: Nola sustatzen da (sare sozialak, influentzerak, online publizitatea)?
- Indarguneak eta ahulguneak: Zein dira bere abantaila lehiakorrek eta hobetzeko arloak?
- Prezioak eta kostuen egitura: Zein da bere prezioen tartea eta negozio-eredua?
- Berrikuntza: Zer berrikuntza mota ezarri ditu (material berriak, teknologiak, diseinuak)?

Aurkeztu informazioa txosten xehe batean, enpresa lehiakideen alderaketa-taula batekin”.

6. ARIKETA

AArekin Business Model Canvas bat sortzea

HELBURUA:

Ariketa honen helburua da AA tresna bat erabiltzea Business Model Canvas oso eta zehatz bat sortzeko enpresa batentzat. Business Model Canvas tresna estrategikoa da eta negozio bateko elementu garrantzitsuak ikusarazteko eta aztertzeko aukera ematen du. Hala, plangintza eta erabakiak hartzea errazten da.

TRESNA:

Testua sortzeko eta aztertzeko gaitasunak dituen AA tresna bat erabiliko dugu (hala nola Perplexity Deep Researchekin, diapositibetan aipatzen denaren arabera).

URRATSAK:

1. Enpresa definitzea

- Aukeratu zer enpresarentzat sortuko duzun Business Model Canvas bat. Zure enpresa propioa, garatzen ari zaren negozio-idea bat edo existitzen den enpresa bat (benetakoa edo fikziozkoa) izan daiteke, praktikatzeko.
- Definitu argi eta garbi negozio-eredua, bere balio-proposamen orokorra eta jarduten duen sektorea.

2. Prompta prestatzea

- Sortu prompt bat Business Model Canvas oso bat sortzeko AAk behar duen informazio guztia emateko.
- Promptak elementu hauek izan behar ditu, Business Model Canvasen arlo garrantzitsuetan eta diapositibetako jarraibideetan oinarrituta:

- > **Rola:** Esleitu rol bat AAri bere erantzuna gidatzeko (adibidez: “Enpresen kudeaketan aditua den ekintzailea zara”).
- > **Jarraibidea:** Definitu zeregin nagusia (adibidez: “Idatzi [enpresaren izena] enpresaren Business Model Canvasa”).
- > **Bezeroen segmentuak:**
 - Zehaztu bezeroen zenbat segmentu aztertu behar diren (adibidez: “bezeroen 5 segmentu”).
 - Adierazi segmentuak definitzeko irizpideak (adibidez: “generoa, adina, lanbidea”).
 - Eskatu segmentu bakoitzerako “pain” (arazoak edo beharrak) eta “gainen” (lortu nahi diren onurak) azterketa xehea (adibidez: “Aipatu hiru pain eta hiru gain segmentu bakoitzeko”).
- > **Balio-proposamena:**
 - Eskatu AAri enpresak lehiakideei dagokienez dituen faktore bereizgarrietan zentratzeko (adibidez: “Enpresaren balio-proposamena: Erreparatu lehiakideekin alderatuta dituen faktore bereizgarri”).
- > **Kanalak:**
 - Zerrendatu enpresak erabiltzen dituen edo erabiltzea planteatzen duen kanalak (adibidez: “Kanalak: denda fisikoa, sare sozialak, webgunea, delivery eta online eskariak”).
- > **Bezeroekin harremana:**
 - Zehaztu bezeroekiko harremanean kontuan hartu beharreko alderdiak (adibidez: “tratu eta arreta mota, fidelizazio-programak, interakzio digitala, ekitaldiak eta dastatzeak”).
- > **Baliabide garrantzitsuak:**
 - Zerrendatu enpresaren baliabide gakoak (adibidez: “lantaldea, azpiegitura, ekipamendua, markaren balioak eta aliantzak hornitzaileekin”).

> **Jarduera garrantzitsuak:**

- Zerrendatu enpresaren jarduera garrantzitsuak (adibidez: “eguneroko ekoizpena, kalitate-kontrola, berrikuntza, marketina, komunikazioa, eskarien kudeaketa eta logistika”).

> **Bazkide garrantzitsuak:**

- Zerrendatu enpresaren bazkide garrantzitsuak (adibidez: “hornitzaileak, delivery plataformak, tokiko erakundeak, marketineko agentziak”).

> **Kostuen egitura:**

- Zehaztu kostuen egituraren gehitu beharreko elementuak (adibidez: “kostu finkoak eta aldakorrak, marketineko inbertsioak eta kostu logistikoak”).

> **Diru-sarreraren iturriak:**

- Zerrendatu enpresaren diru-sarreraren iturriak (adibidez: “Salmenta zuzena denda fisikoan, online denda, eskari bereziak, beste negozio batzuetara banatzea, harpidetzak”).

> **Irteera-formatua:**

- Adierazi erantzuna nola egituratu behar den (adibidez: “Egituratu erantzuna paragrafotan, izenburu eta azpigitulu argiekin”).

3. Business Model Canvas sortzea:

- Sartu prompt xehea AAren tresnan.
- Exekutatu testua sortzeko edo aztertzeko funtzioa.

4. Emaitza berrikustea:

- Berrikusi arretan AAk sortutako Business Model Canvasa.
- Egiaztatu informazioaren koherentzia eta zehaztasuna.
- Egin beharrezko egokitzapenak emaitza enpresaren ezaugarrietara egokitzeko.

5. Business Model Canvas aztertzea:

- Identifikatu hobetzeko arloak, hazteko aukerak eta balizko erronkak.
- Erabili Business Model Canvas plangintza estrategikoaren oinarri gisa eta erabakiak hartzeko oinarri gisa.

Prompt zehatzaren adibidea:

“Enpresen kudeaketan aditua den ekintzailea zara. Idatzi ‘Munduko Kafea’ enpresaren Business Model Canvasa. Jatorri berdingabeko kafean eta gozogintza artisauan espezializatutako kafetegia da.

Honi buruz azterketa zehatza izan behar du:

- Bezeroen 5 segmentu:
 - 1. segmentua: lan egiteko eta sozializatzeko espazio bat bilatzen duten gazte profesionalak (25-35 urte).
 - 2. segmentua: Kafezaleak (edozein adinetakoak), kafearen kalitatean eta barietatean interesa dutenak.
 - 3. segmentua: Tokiko produktuak eta autentikoak dastatu nahi dituzten turistak.
 - 4. segmentua: Ikasteko leku lasai bat nahi duten ikasleak.
 - 5. segmentua: Denbora pasatzeko leku atsegin bat nahi duten adineko pertsonak.
 - Aipatu hiru pain eta hiru gain segmentu bakoitzeko.
- Enpresaren balio-proposamena: Erreparatu lehiakideengandik bereizten duten faktoreei, hala nola kafearen kalitate altuari, gozogintza artisauari, giro atseginari eta zerbitzu pertsonalizatuari.

- Kanalak: Denda fisikoa, sare sozialak, webgunea online eskariekin, lankidetza tokiko bulegoekin cateringerako.
- Harremana bezeroekin: tratu mota eta gertuko arreta pertsonalizatua, fidelizazio-programak deskontuekin, interakzio digitala sare sozialen bidez, kafea dastatzeko eta kafea gozoekin uztartzeko ekitaldiak.
- Baliabide garrantzitsuak: kafean eta gozogintzan espezializatutako lantaldea, giro atsegineko kafetegia, kafea prestatzeko kalitate handiko ekipamendua, kalitatean eta jasangarritasunean oinarritutako markaren balioak, aliantzak jatorri berdingabeko kafe-hornitzaileekin eta kalitatezko lehengaiak.
- Jarduera garrantzitsuak: kafea eta gozoak egunero egitea, produktuen kalitate-kontrola, berrikuntza errezeta berrietan eta aurkezpenetan, marketina eta komunikazioa sare sozialetan eta tokiko ekitaldietan, online eskarien kudeaketa eta cateringa, eska-riak entregatzeko logistika.
- Bazkide garrantzitsuak: jatorri berdingabeko kafe-hornitzaileak, gozogintzarako lehengaien hornitzaileak, delivery plataformak, ekitaldiak egiteko eta sustapenerako tokiko erakundeak.
- Kostuen egitura: kostu finkoak (alokairua, soldatak, hornikuntzak), kostu aldakorak (lehengaiak, ontziak), marketineko eta publizitateko inbertsioak, eta entregatzeko logistika-kostuak.
- Diru-sarreraren iturria: salmenta zuzena denda fisikoan, kafearen eta gozoen salmenta online, ekitaldietarako eskari bereziak, tokiko bulegoei banatzea, kafe-kutxen hileko harpidetza.

Egituratu erantzuna paragrafotan, izenburu eta azpтитulu argiekin.”

7. ARIKETA

AMIA analisia sortzea AArekin

HELBURUA:

Ariketa honen helburua da AA tresna bat erabiltzea enpresa batentzako AMIA analisi (Ahultasunak, Mehatxuak, Indarguneak eta Aukerak) osoa eta zehatza sortzeko. AMIA analisia tresna estrategikoa da eta enpresa baten une horretako egoera ebaluatzeko aukera ematen du, barne-faktoreak (indarguneak eta ahultasunak) zein kanpokoak identifikatuz (aukerak eta mehatxuak).

TRESNA:

Testua sortzeko eta aztertzeko gaitasunak dituen AA tresna bat erabiliko dugu (hala nola Perplexity, Space berri bat sortzeko aukerarekin).

URRATSAK:

1. Enpresa eta testuingurua definitzea:

- Aukeratu AMIA analisia egiteko enpresa. Zure enpresa propioa, lanean ari zaren enpresa edo existitzen den enpresa bat (benetakoa edo fikziozkoa) izan daiteke, praktikatzeko.
- **Testuingurua:** Eman informazio xehea enpresaren testuinguruari buruz, lehiakideei buruzko informazioa (lehiakide zuzenen eta zeharkakoen izenak, haien estrategiak, etab.) eta merkatuko joerak barne.

2. Prestatu prompt zehatza:

- Sortu prompt bat AMIA analisi oso eta garrantzitsu bat sortzeko AAK behar duen informazio guztia emateko.

- Promptak elementu hauek izan behar ditu, AMIA analisiaren arlo garrantzitsuetan eta diapositibetako jarraibideetan oinarrituta:
 - > **Rola:** Esleitu rol bat AAri bere analisia bideratzeko (adibidez: “Enpresen kudeaketan aditua den ekintzailea zara”).
 - > **Jarraibidea:** Definitu zeregin nagusia (adibidez: “Idatzi [enpresaren izena] enpresaren AMIA analisia nire lehiakideei dagokienez”).
 - > **Ahultasunak:**
 - Zehaztu enpresaren barne-alderdi negatiboak aztertzeko (adibidez, “Aztertu zehatz-mehatz: ahultasunak, enpresaren barne-alderdi negatiboak”).
 - Eman ahultasunen adibideak AA gidatzeko (adibidez: “Adibidea: hornitzaile ahulak, lehengai garestiak”).
 - > **Mehatxuak:**
 - Zehaztu enpresaren kanpo-alderdi negatiboak aztertzeko (adibidez, “Mehatxuak: enpresaren kanpo-alderdi negatiboak”).
 - Eman mehatxuen adibideak AA gidatzeko (adibidez: “Adibidea: esku-langileek alde egiten dute, lehiakideak oso finkatuta daude”).
 - > **Indarguneak:**
 - Zehaztu enpresaren barne-alderdi positiboak aztertzeko (adibidez, “Indarguneak: enpresaren barne-alderdi positiboak”).
 - Eman indarguneen adibideak AA gidatzeko (adibidez: “Adibidea: kokapen pribilegiatua, bezeroenganako arreta”).
 - > **Aukerak:**
 - Zehaztu enpresaren kanpo-alderdi positiboak aztertzeko (adibidez, “Aukerak: enpresaren kanpo-alderdi positiboak”).
 - Eman aukeren adibideak AA gidatzeko (adibidez: “Adibidea: kreditu-lerro berriak, hazten ari den sektorea”).

> **Testuingurua:**

- Eman lehiakideei buruzko informazio zehatza (adibidea: “Testuingurua: enpresa hauek nire lehiakide zuzenak dira: [Enpresen zerrenda]”).
- Lehiakideei buruzko informazio gehigarria baldin baduzu (adibidez: pdf fitxategiak edo url-ak), gehitu ezazu analisia aberasteko.

3. AMIA analisia egitea:

- Sartu prompt xehea AAren tresnan.
- Exekutatu testua sortzeko edo aztertzeko funtzioa.

4. Emaitza berrikustea:

- Berrikusi arretaz AAk sortutako AMIA analisia.
- Egiaztatu informazioaren koherentzia, zehaztasuna eta garrantzia.
- Egin beharrezko egokitzapenak emaitza enpresaren ezaugarri espezifikoetara eta aztertutako testuingurura egokitzeko.

5. AMIA analisia aplikatzea:

- Identifikatu enpresak zer arlotan dituen abantaila lehiakorrak (indarguneak eta aukerak) eta zer arlotan behar duen arreta jartzea edo hobetzea (ahultasunak eta mehatxuak).
- Erabili AMIA analisia erabaki estrategikoak hartzeko, ekintza-planak formulatzeko eta arriskuak arintzeko oinarri gisa.

Promptaren adibidea:

“Enpresen kudeaketan aditua den ekintzailea zara. Idatzi ‘Hegoaldeko Liburuak’ nire enpresaren AMIA analisia, lehiakideei dagokienez. Liburu-denda espezializatu bat da eta tokiko literaturan eta bigarren eskuko liburuetan dago espezializatua.

Aztertu zehatz-mehatz:

- Ahultasunak: enpresaren barne-alderdi negatiboak. Adibidea: espazio fisiko mugatua, online denda sendoa falta zaio, marketineko baliabide mugatuak.
- Mehatxuak: enpresaren kanpoko-alderdi negatiboak. Adibidea: liburu-kate handien kompetentzia, liburuen online salmentaren hazkundera, irakurtzeko ohituraren beherakada.
- Indarguneak: enpresaren barne-alderdi positiboak. Adibidea: tokiko literaturan espezializatutako ezagutza, bezeroentzako arreta espezializatua, irakurleen komunitate fidela, ekitaldiak eta literatur tailerrak.
- Aukerak: enpresaren kanpo-alderdi positiboak. Adibidea: tokiko literaturarekiko geroz eta interes handiagoa, ekonomia kolaboratzailearen gorakada (bigarren eskuko liburuen salmenta), online presentzia handitzeko aukera.

Testuingurua: enpresa hauek nire lehiakide zuzenak dira: 'La Casa del Libro' (liburu-kate handia), 'Amazon' (liburuen denda elektronikoa), 'Cervantes liburu-denda' (tokiko beste liburu-denda bat, online dendarekin). Liburu elektronikoen eta audio-liburuen plataformak ere zeharkako lehiakideak dira."

8. ARIKETA

Dirulaguntza bat aztertzea NotebookLMrekin (urratsez urrats)

HELBURUA:

Ariketa honen helburua da NotebookLM erabiltzea dirulaguntzen dokumentu bat sakon aztertzeko, informazio garrantzitsua aterata, errazago ulertu eta aplikatu ahal izateko. NotebookLM bereziki erabilgarria da dokumentu luze eta konplexuak aztertzeko, adibidez, dirulaguntzetarako deialdiak.

TRESNA:

NotebookLM erabiliko dugu.

URRATSAK:

1. Dirulaguntzaren dokumentua lortzea:

- Aurkitu aztertu nahi duzun dirulaguntzaren deialdiaren dokumentu ofiziala. Dokumentu hori PDF, DOC edo webgune baten formatuan egon daiteke.
- Tailerrean BOE (Estatuko Aldizkari Ofiziala) eta/edo LANBIDE aipatu ziren balizko iturri gisa.

2. NotebookLMn dokumentua kargatzea:

- Sartu NotebookLMra eta sortu "notebook" berri bat.
- Kargatu dirulaguntzaren dokumentua NotebookLMn. PDF edo DOC formatuan baldin badago, igo ezazu zuzenean. Webgune batean baldin badago, edukia kopiatu eta itsatsi dezakezu, edo NotebookLMk aukera ematen badu, URLa kargatu.

3. NotebookLMrekin ohitzea:

- Hartu minutu batzuk NotebookLMk dokumentua nola prozesatu duen berrikusteko.
- Begiratu ea atalak, izenburuak eta azpigituluak ondo identifikatu dituen.

4. NotebookLMri galdera garrantzitsuak egitea:

- Has zaitetz NotebookLMri galderak egiten behar duzun informazioa ateratzeko.
- Hauek dira egin ditzakezun galdera garrantzitsuetako batzuk:
 - > “Zein da dirulaguntzaren helburua?”
 - > “Zein dira balizko onuradunak?”
 - > “Zer baldintza bete behar dira dirulaguntza eskatzeko?”
 - > “Zer proiektu edo gastu dira aukeragarriak?”
 - > “Zein da dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa?”
 - > “Zein da eskaera aurkezteko epea?”
 - > “Zer dokumentu aurkeztu behar dira?”
 - > “Zein dira eskaerak ebaluatzeko irizpideak?”
 - > “Zein dira dirulaguntzaren onuradunaren betebeharrak?”

5. Laburpenak eta eskemak eskatzea:

- Eskatu NotebookLMri dokumentuaren atal espezifikoaren laburpenak edo dirulaguntzaren laburpen orokor bat sortzeko.
- Informazioa modu jakin batean egituratzeko eska diezaiokezu, adibidez, zerrenda edo taula moduan edo eskema mental moduan (mind map).

6. Aurkeztu beharreko dokumentuetatik informazioa ateratzea:

- Jarri arreta berezia eskaera egiteko beharrezkoa den dokumentazioaren informazioan.
- Egin galdera zehatzak gai horri buruz, adibidez:
 - > “Jatorrizko zer dokumentu aurkeztu behar dira?”
 - > “Zer dokumenturen kopiak aurkez daitezke?”
 - > “Zer formulario bete behar dira?”
 - > “Ziurtagiri motaren bat aurkeztu behar da?”

7. Laburpena egitea Markdown formatuan (hautazkoa):

- Informazioa beste tresna batzuetan erabili nahi baduzu, NotebookLMri eska diezaiokezu laburpen bat egiteko Markdown formatuan.
- Promptaren adibidea: “Egin laburpena dirulaguntzaren xehetasunekin, batez ere, dokumentazioa nola aurkeztu jakiteko, eta egin ezazu markdown formatuan”.
- Kopiatu NotebookLMk sortutako edukia.


8. Esportatu eta erabili informazioa:

- Esportatu NotebookLMtik ateratako informazioa nahi duzun formatura (testua, Markdown, etab.).
- Laburpena egin baduzu Markdownen, testu-editore batean kopiatu dezakezu, lehen lerroa ezabatu (“Hemen duzu...”) eta fitxategia .md luzapenaren gorde.
- .md fitxategi hori online tresnetan erabil daiteke, adibidez Xmind.ai tresnan, mapa mental bat sortzeko.

NotebookLMrekin izandako interakzioaren adibidea:

Demagun PDF bat kargatu duzula NotebookLMn berrikuntza-proiektuentzako dirulaguntza baten deialdiarekin.

- Zu: “Zein da eskaerak aurkezteko epea?”
- NotebookLM: “Eskaerak aurkezteko epea 2025eko martxoaren 15a da, dokumentuaren 3.2 atalean adierazten denaren arabera”.
- Zu: “Egin proiektuak ebaluatzeko irizpideei buruzko atalaren laburpena”.
- NotebookLM: “Dokumentuaren 4.1 atalak proiektuen ebaluazio-irizpideak deskribatzen ditu. Irizpide horien barruan sartzen dira proiektuaren berrikuntza, bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa eta inpaktu soziala eta ingurumenekoa”.
- Zu: “Egin laburpena dirulaguntzaren xehetasunekin, batez ere, dokumentazioa nola aurkeztu jakiteko”.



AA sortzailean tailerra

ZEREGINEN AUTOMATIZAZIOAN aplikatuta

| | |
|---|----|
| Sarrera | 60 |
| Zereginak automatizatzeko erabilera-kasuak | 62 |
| Mezu elektronikoen kudeaketa optimizatzea AArekin | 63 |
| Datuak biltzeko eta aztertzekeo tresnak | 64 |
| AAk enpresa-prozesuak Optimizatu dituen erabilera-kasuak | 66 |
| Ariketa: Mezu elektronikoko idazteko prozesua automatizatzea AArekin (tonuak eta estiloa) | 67 |
| Ariketa: Datuak biltzea eta aztertzea (Claudekin sakontzea) | 70 |
| Ariketa: AAren ekimenak aztertzea eta analizatzea Espainiako Enplegu Agentzietan | 73 |
| Ariketa: Bezeroari laguntzeko agente bat sortzea AA sortzailearekin | 77 |

Adimen Artifizial Sortzailea hainbat arlo profesionaletako zereginak optimizatzeko funtsezko tresna da. Eduki koherente eta garrantzitsua sortzeko duen gaitasunari esker, dokumentu legalak sortzeko, mezu elektronikoak idazteko, datuak aztertzeko eta gauza gehiagorako aliatua da. Zeregin errepikakorrak eta denbora eskatzen dutenak bere gain hartzen dituenek, AAri esker, langileek giza gaitasun berdingabeak eskatzen dituzten zereginak egin ditzakete, besteak beste, zeregin sortzaileak egin, arazo konplexuak bideratu eta erabaki estrategikoak hartu.

AA Sortzailearen asmoa ez da langileak ordezkatzea, haien gaitasunak osatzea eta produktibitatea sustatzea baizik.

Gida honetako atal honen helburua da gogoeta egitea: AA Sortzailea lan-mundua nola eraldatzen ari den eta langileak nola presta daitezkeen teknologia horren onurak ahalik eta gehien aprobetxatzeko. Enpleguaren eta ekintzailtzaren arloko teknikarien ikuspegira bideratuta dago.

Automatizazioa eta AA Sortzailearen rola

Automatizazioaren kontzeptuan eta AA sortzailea prozesu horretan integratzeko moduan, zeregin erreplikakorrak, hau da erraz automatizatu daitezkeenak, eta zeregin espezializatuak, ezagutza eta gaitasun espezifikokoak eskatzen dituztenak, bereizten dira. AA Sortzaileak zeregin erreplikakorrak bere gain hartzeko potentziala du, profesionalak libratzeko eta zeregin konplexuagoak eta balio handiagoa dutenak egin ahal izateko. Hala ere, azken bi urteetan, AAK aurrerapausoak egin ditu zeregin espezializatuak ere egin ahal izateko.

Gainera, lan-fluxuak eraikitzeko eta automatizatzeko plataformak daude, adibidez, Make.com, Zapier eta Microsoft Power Automate, eta aplikazioak eta sistemak AAren produktuekin lotzen dituzte, hala nola Chat GPT edo Copilotekin.

AA ezartzeko aurreikuspenak eta erronkak

AA Sortzaileak enpresa-arloan duen ezarpenari dagokionez, aurreikuspenak zein erronkak daude. Alde batetik, AAren efizientzia handitzea, kostuak murriztea eta lan-kalitatea hobetzea espero da. Bestalde, hainbat erronka daude, besteak beste, lan-fluxuak egokitzeak, erakundeko langile guztiak formatzeko eta AAren erabileran segurtasuna eta etika bermatzeko beharra.

Zereginak automatizatzeko erabilera -kasuak

Dokumentuak automatikoki sortzea eta txostenak aztertzea

Adimen Artifiziala informazioarekin interakzioa izateko dugun modua iraultzen ari da, batez ere dokumentuak sortzeko eta txostenak aztertzeko garaian. Perplexity eta Google-ren NotebookLM tresnek aukera ematen dute dokumentuen bolumen handiak bilatzeko eta aztertzeko eta informazio garrantzitsuak azkar eta zehatz ateratzeko. Jarraian, teknikarien egunerokorako aplikazio batzuk zerrendatuko dira.

Aplikazio praktikoak:

- **Dirulaguntzentzako dokumentuak aztertzea:** AAk azkar identifikatu ditzake aukeratua izateko baldintzak eta irizpideak, denbora aurreztuz eta arrakasta izateko aukerak handituz.
- **Laburpen exekutiboak sortzea:** Txosten luzeetatik edo bileren transkripzioetatik abiatuta, AAk laburpen zehatzak sor ditzake puntu garrantzitsuenak biltzeko.
- **Proposamenak eta kontratuak idaztea:** AAk dokumentu legalak eta komertzialak idazten lagun dezake, koherentzia eta zehaztasuna bermatuz.

Mezu elektronikoaren kudeaketa optimizatzea AArenkin

Posta elektronikoak lan-mundurako funtsezko tresna izaten jarraitzen du, baina kudeaketa nekagarria izan daiteke. AAk aukera ematen du prozesu hori optimizatzeke, erantzunak sortuz eta mezu elektronikoak itzuliz, besteak beste.

Prompten adibide errazak

- **Erantzunak sortzea:**
 - "Idatzi erantzun formal bat informazioa eskertuz eta bilerara joango naizela baieztatuz."
 - "Idatzi mezu formal bat proiektua entregatzeko luzapen bat eskatuz."
 - "Idatzi mezu bat premiazko tonuarekin, ordainketa bat egiteke dagoela gogoraraziz."
- **Mezu elektronikoak itzultzea:**
 - "Itzuli mezu elektroniko hau ingelesetik gaztelaniara."
 - "Itzuli mezu elektroniko hau gaztelaniatik frantsesera, tonu formala mantenduz."

Datuak biltzeko eta aztertzeko tresnak

Halaber, datuak jasotzeko eta aztertzeko modua eraldatzen ari da AA. Copilot for Excel eta Clauden moduko tresnek aukera ematen dute azterketa aurreratu efizienteagoak eta irisgarriagoak egiteko.

Funtzionaltasun garrantzitsuak

- **Datuen esplorazio-analisia:** Datuetan murgiltzea bere egitura ulertzeko, ezohiko baliokak identifikatzeko eta hasierako patroiak ezagutzeko. Horren barruan sar daitezke estatistika-neurri deskribatzaileak, hala nola zentralizatzeko joera duten neurriak (batezbestekoa, mediana, moda) eta bereizteko joera dutenak (tarteak, desbideratze estandarra, bariantza). Sakabanatze hori erakusteko grafiko batzuk ere sor ditzake.
- **Grafikoak sortzea:** Datuak hainbat grafiko motaren bidez bistaratzeko, hala nola histogramekin, sakabanaketa-diagramekin, kutxa eta biboteen diagramekin eta barra-grafikoekin. Hala, errazagoa da datuetan joerak, harremanak eta banaketak identifikatzea.
- **Taulen eta grafikoaren azalpena:** Sortutako tauletatik eta grafikoetatik ateratako emaitzak interpretatzeko eta komunikatzeko. Horretarako, hautemandako joerak deskribatu, aldagaien arteko harremanak azaldu eta edozein ondorio garrantzitsu nabarmendu behar da.
- **Taula dinamikoak sortzea:** Tresna interaktiboak sortzea datuen multzo handiak laburtzeko eta aztertzeko. Horrek aukera ematen die erabiltzaileei datuak hainbat irizpideren arabera iragazteko, antolatze eta gehitzeko. Hala, ezagutzak aztertu eta deskubritu daitezke hainbat ikuspegitik.
- **Sentimenduaren analisia:** Lengoia naturala prozesatzeko (PLN) teknikak eta ikaskuntza automatikoa aplikatzea, testuaren sentimendua positiboa, negatiboa edo neutroa den sailkatzeko. Erabilgarria da hori bezeroen iritzia, produktuen iruzkinak eta sare sozialetako argitalpenak aztertzeko.

Agente espezifikoak sortzea

AA sortzailearen tresna batzuk aukera ematen dute agente espezifikoak sortzeko, eduki edo zeregin jakin batzuen gainean erantzuteko. Microsoft Copilot Studio da tresna horietako bat.

Microsoft Copilot Studio AA sortzailearen tresna-multzoko tresna berria da eta Aaren arloko agente espezializatuak sortzen ditu. Agente horiek hainbat zeregin egiteko diseinatu daitezke, besteak beste, eduki batzuen gaineko galdera espezifikoak erantzuteko eta ezagutza espezializatuagoa eskatzen duten zeregin konplexuagoak egiteko. Sortu eta konfiguratzean, konektatu eta erakundearen ekosisteman edo Microsoft Teamsen bitartez partekatu daitezke.

Agente horiek sortzeko oinarria Copilot Studiok informazio kopuru handiak prozesatzeko eta ulertzeko duen gaitasuna da. Tresnari eduki edo zeregin espezifiko batzuk ematean, agente bat "entrenatu" dezake tresnak arlo horretan espezializatu dadin. Hala, enpresek eta erakundeek laguntzaile birtual pertsonalizatuak sor ditzakete, erabiltzaileekin edo enplegatuekin interakzio efizienteagoa eta zehatzagoa izateko.

Tresnak interfaze erabilerraza du, eta agenteak lengoia naturalean sortzea eta kudeatzea azkartzen du. Halaber, hainbat analisi-tresna eskaintzen ditu enpresek bere agenteen errendimenduaren jarraipena egiteko eta datuen arabera hobekuntzak egiteko..

AAk enpresa-prozesuak Optimizatu dituen erabilera-kasuak

AArekin enpresa-prozesuak optimizatzeko erabilera-kasu errealak aurkeztuko dira. Gehienak txatbot bidezko bezeroen arretan, dokumentuen automatizazio-prozeduran eta erabiltzailearen ahotsaren azterketan aplikatzen dira.

- OpenAI lankidetzan aritu da hainbat enpresarekin haien operazioak eta erabiltzaileen esperientziak hobetzeko. Adibidez, 240 GPT pertsonalizatu baino gehiago ezarri ditu ChatGPT Enterprisekin inkesten eta entsegu klinikoan datuak aztertzeko, produktuen garapena azalera ahal izateko eta enplegatuei zeregin sortzaileagoetan jardutea ahalbidetu ahal izateko.
- Bestalde, Klarnak OpenAI teknologia integratu du erosketa pertsonalizatuaren esperientzia, bezeroentzako zerbitzua eta barne-produktibitatea eraldatzeko, eta haren AA bidezko laguntzailea nabarmentzen da, lanaldi osoko 700 agenteren zeregin balioki-deak kudeatzen baititu.
- OpenAI lankidetzan aritu da Zaladorekin 25 herrialdetan dituen 50 milioi bezero baino gehiagoren erosketa-esperientzia hobetzeko. Elkarrekin garatu zuten "Zalando Assistant", GPT-4o minik sustatutako tresna. Gomendio pertsonalizatuak eskaintzen ditu eta produktuak bilatzen laguntzen du. Ezarri ostean, % 23 egin zuen gora produktuen klik-kopuruak eta % 40 baino gehiago gogokoen zerrendara gehitutako produktuen kopuruak. Gainera, laguntzailea 25 merkatutara zabaldu zen, tokiko hizkuntzetara egokituz.

ARIKETA

Mezu elektronikoak idazteko prozesua automatizatzea AArekin (tonuak eta estiloa)

AAk, eta zehazki ChatGPTren edo Copiloten moduko tresnek, mezu elektronikoak idazteko funtzioa optimizatu dezake. Mezu elektroniko baten tonua egokitzea denbora dezente eskatzen duen zeregina da, baina oso eraginkorra izatera hel daiteke bezeroen arretarako, barne-komunikazioetarako edo beste interakzio batzuetarako.

Hau izan daiteke prompt baten adibide bat:

“Komunikazio profesionalean eta bezeroarentzako arretan espezializatutako idazle-laguntzailea zara.

Idatzi mezu elektroniko honentzako erantzun bat hainbat tonutan, behararren arabera.

Nola erantzungo zenioke mezu elektroniko honi tonu hauetan: **formala, gertukoa, gogotsua eta laburra eta zuzena?**

Testuingurua:

- Erantzunak bat etorri behar du jasotako mezu elektronikoaren edukiarekin.
- **Tonua eta estiloa** eskaeraren arabera egokitzea:
 - **Formala:** Profesionala eta egituratua, komunikazio korporatiboetarako ezin hobea.
 - **Gertukoa:** Atsegina eta beroa, bezeroekin edo kolaboratzaileekin mezuak trukatzeko ezin hobea.
 - **Gogotsua:** Energetikoa eta motibatzailea, erabilgarria argitalpenetarako edo marketingo erantzunetarako.
 - **Laburra eta zuzena:** Zehatza eta argia, erantzun azkarrak emateko kortesiarik galdu gabe.”



Jarraian, AAk mezu elektronikoak idazten laguntzen duen agertoki zehatzagoak aurkeztuko dira, tonuaren egokitzapenera bideratuta:

- Amaierako erabiltzailearenganako arreta. Kexa baten erantzuna:
 - **Agertokia:** Erabiltzaile batek adierazi du ez dagoela asebeteta produktu edo zerbitzu batekin..
 - **Erantzunaren tonuak eta adibideak:**
 - > **Enpatikoa:** Ulermena adieraztea eta barkamen zintzoa eskatzea.
 - “[Izena] agurgarria, bereziki sentitzen dugu [produktu/zerbitzuarekin] izandako eragozpenak. Ulertzen dugu zure frustrazioa eta arazoa lehenbailehen bideratzeko lanean ari garela ziurtatzen dizugu.”
 - > **Erabakitzailea:** Soluzioan eta egin beharreko urratsetan zentratzea.
 - “Arazo hori bideratzeko, bidali mesedez [informazio gehigarria]. Informazio hori jasotzean, [soluzioa] bideratuko dugu. Egoeraren berri emango dizugu uneoro.”
 - > **Profesionala:** Soluzio formal bat eskaintzea.
 - “Eskertzen ditugu zure iruzkinak eta barkamena eskatu nahi dizugu eragindako edozein eragozpenengatik. [Erreferentziatzeko zenbakia] zenbakidun kexa erregistratu dugu eta aztertzen ari gara. Gure lehenbaitasuna soluzio asebetegarri bat ematea da.”
 - **Barne-komunikazioa.** Erakundearen politikan izandako aldaketa baten berri ematea:
 - **Agertokia:** Enpresaren politiketan izandako aldaketa garrantzitsu baten berri eman behar zaie enplegatu guztiei.


- **Tonuak eta adibideak:**

> **Informatiboa:** Argia eta zehatza izatea aldaketa azaltzeko garaian.

- “Langile agurgarriak:
Jakinarazten diegu [eguna](e)tik aurrera [politika] politika berri bat sartuko dela indarrean. Politika horren helburua da [helburua].”

> **Gardentasuna:** Aldaketaren atzean dauden arrazoiak azaltzea eta balizko galderrei erantzutea.

- “Lankide agurgarriak:
[Politika] politikan izandako aldaketa baten berri eman nahi dizuegu. Aldaketa horren arrazoa izan da [arrazoiak]. Bali-teke galderak izatea, eta, horretarako, ohiko galderen dokumentu bat prestatu dugu [esteka].”



ARIKETA

Datuak biltzea eta aztertzea (Claudekin sakontzea)

AAren arloko tresnek, zehazki Claudek, datuak biltzeko eta aztertzeko prozesua eralda dezakete. Tradizionalki, prozesu horrek hainbat etapa izan ditu, datuen prestaketatik hasi eta insightsak atera arte. Claude lagungarria izan daiteke etapa horietako bakoitzean, analisia egiteko denbora eta zehaztasuna optimizatuz.

Datuen analisiaren funtzionaltasunak erabiltzeko, lehenik eta behin aukera hori aktibatu behar duzu zure profilaren konfigurazioan. Ordura arte “Beta feature” moduan egongo da.

1. Datuak prestatzea eta garbitzea:

- Claude lagungarria izan daiteke datu-multzoetako akatsak identifikatzeko eta zuzentzeko, hala nola falta diren balioak, bikoiztutakoak edo zentzugabekeriak.
- Lagungarria izan daiteke datuak analisia egiteko formatuetara egokitze garaian, eta aldagaiak normalizatu, estandarizatu eta kategorizatu ere egin ditzake.
- Claudeko promptingak datuen garbiketa egiten lagundu dezake, adibidez:
 - “Berrikusi datuen multzo hau eta adierazi ezohiko balioak dituzten gelaxkak”.
 - “Estandarizatu zutabe honetako egunen formatuak”.

2. Datuen esplorazio-analisia (EDA):


- Claudek datuen estatistika-laburpenak sor ditzake, joera zentraleko neurriekin, sakanaketa-neurriekin eta banaketa-neurriekin.
- Datuak ikusarazten lagun dezake grafikoan testu bidezko deskribapenekin edo patroigarrantzitsuak identifikatuz.
- Esplorazio-analisan oinarritutako hasierako hipotesiak iradoki ditzake.
- Prompten adibideak:
 - “Deskribatu datuen multzo horren ezaugarri nagusiak.”
 - “Identifikatu X eta Y aldagaien arteko korrelazioak.”

3. Eredua egitea eta analisi aurreratua:

- Claudek estatistika-ereduak zuzenean egiten ez dituen arren, ereduak formulatzen, emaitzak interpretatzen eta aldagai garrantzitsuak identifikatzen lagun dezake.
- Machine Learningeko algoritmoak ulertzen eta arazo jakin baterako egokienak aukeratzten lagun dezake.
- Ereduaren emaitzen azalpenak sor ditzake lengoia naturalean.
- Adibideak:
 - “Azaldu erregresio-eredu lineal batek nola funtzionatzen duen.”
 - “Lagundu klusterren analisi honen emaitzak interpretatzen.”

4. Insightsak ateratzea eta emaitzak komunikatzea:

- Claudek analisiaren emaitzak sintetizatu ditzake eta erabakiak hartzeko insightsik garrantzitsuenak atera.
- Txosten laburrak sor ditzake hainbat formatu eta tonutan, audientziari egokituta.
- Emaitzak modu argi eta eraginkorrean komunikatzen lagun dezake, lengoaia ez teknikoia erabiliz.
- Adibideak:
 - “Laburbildu analisi honen emaitza nagusiak publiko ez teknikoarentzat.”
 - “Sortu txosten bat aurkezpen formatuan azken hiruhileko salmenten joerei buruz.”



ARIKETA

AAren ekimenak aztertzea eta analizatzea Espainiako Enplegu Agentzietan

Helburua: Espainiako beste enplegu-agentzia batzuk Adimen Artifiziala (AA) zerbitzuak hobetzeko eta dokumentu garrantzitsuak sakon aztertzeke nola erabiltzen ari diren aztertzea.

1. fasea: Perplexityrekin informazioa bilatzea (Deep Search)

1. Perplexityn prestatzea:

- Ireki Perplexity.
- Aktibatu “Pro Search” edo “Deep Search” funtzioa (Perplexityren zure bertsioan eskuragarri baldin badago) bilaketa-emaitza zehatzagoak eta xeheagoak lortzeko.

2. Hasierako bilaketa:

- Erabili informazio garrantzitsua aurkitzeko prompt espezifikoak. Prompten adibideak:
 - > “Bilatu Espainiako enplegu-agentziek adimen artifizialaren gainean egindako ekimenei buruzko PDFa”.
 - > “Bilatu Espainiako erkidegoetako enplegu-zerbitzuetan AA ezarri izanaren kasu-azterketak filetype:pdf.”
 - > “Aztertu [Autonomia Erkidegoa]ko enplegu-zerbitzu publikoek AAekin egindako digitalizazio-proiektuak filetype:pdf.”

3. Bilaketa fintzea:

- Aztertu hasierako emaitzak eta findu zure promptak informazio zehatzagoa lortzeko.

- Erabili bilaketa-operadoreak beharrezkoa bada (hala nola "site:" enplegu-agentzien edo autonomia erkidegoen agentzien webgune espezifikoetan bilatzeko).
- Jarri arreta berezia PDF fitxategietan.

4. PDF garrantzitsuak identifikatzea:

- Berrikusi Perplexityren emaitzak eta aukeratu zure ikerketarentzat garrantzitsuenak diruditen PDFak.
- Perplexityk laburpenak edo dokumentuen zatiak ematen ditu maiz eta horrek erabilgarritasuna ebaluatzen laguntzen du.

2. fasea: PDFak deskargatzea

1. Fitxategiak deskargatzea

- Deskargatu aurreko fasean identifikatutako PDFak.
- Antolatu fitxategiak zure ordenagailuko karpeta batean NotebookLMn aztertu ahal izateko.

3. fasea: PDFak aztertzea NotebookLMrekin

1. NotebookLM prestatzea:

- Ireki NotebookLM (sarbidea baldin baduzu).
- Sortu proiektu berri bat edo "Notebook" bat.

2. PDFak inportatzea:

- Igo deskargatutako PDFak zure NotebookLMra.
- NotebookLMk dokumentuak prozesatuko ditu eta aztertzeke prestatu.

3. Dokumentuak aztertzea:

- Erabili NotebookLMren funtzioak PDFak aztertzeko. Azterketaren adibideak:
 - > **Galdera zehatzak:** Egin galderak PDFen edukiari buruz, adibidez:
 - “Zein dira AAren aplikazio nagusiak enplegu-agentzia horietan?”
 - “Zer onura lortu dira AA ezartzeko garaian?”
 - “Zer erronka izan dira AA ezartzeko garaian?”
 - > **Ekimenak alderatzea:** Eskatu NotebookLMri hainbat agenteren ekimenak alderatzeko.
 - “Alderatu AA ezartzeko X agentziak ea Y agentziak ezarritako estrategiak.”
 - > **Joerak identifikatzea:** Eskatu NotebookLMri aztertutako agentzietan AA erabiltzeko joera komunak identifikatzeko.
 - “Zein dira dokumentu hauetan laneko orientaziorako AA erabiltzeko joerarik komunenak?”
 - > **Laburpenak eta sintesiak:** Eskatu NotebookLMri dokumentuen edo atal espezifikoen laburpenak edo sintesiak egiteko..
 - “Laburbildu PDF horietan deskribatutako AAren proiektu nagusiak.”

4. Informazioaren antolaketa:

- Erabili NotebookLMren tresnak PDFetatik ateratako informazioa antolatzeko (adibidez, oharrak, etiketak edo laburpenak sortuz).

2. adibidea:

Demagun Espainian laneko orientaziorako AA nola erabiltzen den ikertu nahi duzula.

1. Perplexity (Deep Search):

- Erabili honen moduko prompt bat: “Bilatu Espainiako enplegu-zerbitzuetan laneko orientazioa emateko egiten den AAREN erabilerari buruzko PDF azterketak filetype:pdf.”
- Perplexityk hainbat PDFtarako estekak emango dizkizu, autonomia erkidegoetako txostenak, unibertsitate-ikerketak eta enplegu-agentzietako argitalpenak barne.

2. Deskarga:

- Deskargatu PDFrik garrantzitsuenak eta kopiatu URLak baten bat iradoki badu.

3. NotebookLM:

- Igo PDFak NotebookLMra.
- Estekatu URLak NotebookLMra, batzuk ez dira prozesatuko baina testu laua dutenak bai.
- Egin honelako galderak:
 - > “Nola erabiltzen da AA dokumentu horietan erabiltzaile-profilak egiteko?”.
 - > “Alderatu txatboten erabilera Madrilgo Erkidegoko eta Kataluniako lan-orientazioan”.
 - > “Zein dira enplegua bilatzeko AA bidezko plataformak ezarri izanaren emaitzak azterketa horien arabera?”

Ariketa horrekin enplegu-agentzietan egiten den AAREN erabilerari buruzko informazio garrantzitsua aurkitzeaz gain, sakon aztertu daiteke eta ondorio garrantzitsuak atera AA bidezko tresnak erabiliz.

ARIKETA

Bezeroari laguntzeko agente bat sortzea AA sortzailearekin

Ariketa honetan proposamena da agente bat sortzea, ohiko galderei erantzuteaz gain, AA sortzailea erabil dezan fitxategien (adibidez, PDFak) datuetan oinarritutako galderak ulertzeko eta erantzuteko.

1. urratsa: Copilot Studio / Agent Builderrera sartzea

1. Sartu **Microsoft Copilot Studio / Agent Builder** eta identifika zaitez Microsofteko zure kontuarekin.
2. Sortu proiektu berri bat edo aukera existitzen den proiektu bat funtzionaltasunak gehitzeko.

2. urratsa: Sortu proiektu berri bat

1. Sakatu **“Nuevo proyecto”**.
2. Esleitu izen bat zure agenteari, adibidez, **“AA bidezko laguntzaile aurreratua”**.
3. Aukeratu agentearen xedea, hala nola **“Laguntzailea”** edo **“Euskarri Aurreratua”**.

3. urratsa: PDFak igotzea ezagutzaren oinarria

1. Joan zaitez **Ezagutzaren oinarria** edo **Knowledge Base**.
2. Sakatu **“Erantsi fitxategia”** eta aukeratu PDFak edo beste dokumentu garrantzitsu batzuk igotzeko aukera.
3. Fitxategia igo ondoren, ziurtatu sistemak edukia indexatu duela AAk erantzunak zuzenean bila ditzan dokumentuetan.

4. Probatu adibideak agenteak igotako fitxategietan oinarritutako galderak ulertzen dituela bermatzeko. Adibidez:
 - Erabiltzailea: “Zein da itzulketa-politika?”
 - Agentea (AA sortzailea): “Politiken dokumentuaren arabera, 30 egun dituzu itzultzeko”.

4. urratsa: Erantzunak gaitzea AA sortzailearekin

1. Joan zaituzte **AA sortzailea** konfiguratzeko atalera.
2. Aktibatu testuinguruan oinarritutako erantzunak sortu ahal izateko funtzioak. Adibidez:
 - Erabiltzailearen informazio partziala osatzea.
 - Kontsulta konplexuei erantzutea hainbat datu-iturri erabiliz.
3. Testuinguruaren mugak konfiguratzeko erantzunak zehatzak izatea bermatzeko.

5. urratsa: Testuinguru gehigarriarekin entrenatzea

1. Entrenatu eredu adibide espezifikoekin.
2. Gehitu ohiko galderak eta kasu konplexuak agenteak AA sortzailearen laguntzarekin ebazteko.
3. Gehitu emaitzak hobetzeko iradokizunak, hala nola “Elkarrizketa-tonua erabiltzea” edo “Testu luzeak erantzun zehatzetan laburtzea”.

6. urratsa: Dokumentuen fluxua integratzea

1. Sortu ibilbide espezifikoak elkarrizketa-fluxuan, agenteak PDFaren edukia erabiltzen duen lekuan.
2. Konfiguratu arauak hainbat kontsulta ezagutza-oinarri aberastura bideratzeko.



AA SORTZAILEAREN TAILERRETAKO ARIKETEN ESTEKAK

1

Enpleguaren
bilaketan




2


Negoio txikietako
ekintzailetzan



3

Negoio txikietako
ekintzailetzan





Garapen

GARAPEN AGENTZIEN EUSKAL ELKARTEA
ASOCIACIÓN VASCA DE AGENCIAS DE DESARROLLO



Barakaldo CIUDAD-HIRIA | *inguralde*

